ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2007ko maiatzaren 7a > Astelehena > III. urtea > 144. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net



"Alardearekiko identifikazio emozionalik ez dute antzuolar gehienek"

Margaret Bullen > 06

**G2a** Magia Mostra, hirugarren aldiz arrakastatsu > 23

**GOIENA.NET** Iragarki sailkatuak norberak ipin ditzake orain Goiena.net-en > 04

**ARRASATE** Legarreko pabilioiak bota egingo dituzte, 80 etxebizitza egiteko > 10

**ROCK KONTZERTUA** Arrasateko lehengo eta oraingo taldeak, batera agertokian > 26

**POLITIKA** > AUZITEGI GORENAREN ERABAKIA

# Gureko ASren zerrenda guztiak eta EAEren bi, baliogabetuta

**EPAIA** Espainiako Auzitegi Gorenak zapatuan erabaki zuen Abertzale Sozialisten zerrendak atzera botatzea

**EAE-ANV** Estatuko Fiskaltzak eta Abokatuak, biek, inpugnatutako EAEren zerrendak ere baliogabetu ditu

**KONSTITUZIONALA** Bi alderdiok gaur, astelehena, dute Auzitegi Konstituzionalean helegitea aukeratzeko epea > 05

Barruan, Arrasate errugbi taldearen posterra





**IKUSKIZUNA** Alarde batzuek ikuskizuna egin zuten, batera; irudian, Irungo alarde mistokoak eta, atzean, Antzuolako kapitaina. JOSETXO ARANTZABALL

# Euskal Herriko hainbat alarderen topaleku eta erakusleiho izan da Antzuola aste bukaeran

ZAZPI ALARDE ETORRI ZIREN; ANTZUOLAKOAREKIN, ZORTZI IZAN ZIREN HERRIAN. DATORREN URTEAN, TOLOSAN BATUKO DIRA > 05

**EKONOMIA** > HITZALDIAK

## Enpresa eta merkatariei zuzenduta

Ibarreko enpresek eta merkatariek formakuntzarako aukera bana dute asteon. Hala, gaur, astelehena, Elkargik antolatutako finantza jardunaldiak hasten dira Bergaran. Bestalde, bihar, Arrasaten, merkatarien oinordekotzaz berba egingo dute. > 04

**KIROLA** > KILOMETROAK

## KMK jaiaren aldeko kirol asteburua

Ikus-entzunezkoa, euskal jokoak... izan dituzte Bergaran > 15

AURKIBIDEA

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32


SUPER AMARA
DENAK GUTXIAGO BALIO DU
BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea,18 P Bezeroentzako Aparkalekua

S-MAX your life.


Ford S-MAX berria. Urteko Autoa 2007an Europan
24.000 € -tik aurrera
MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Ford




**PROTESTA** Egubakoitzean hasi zuten greba Barruko Mediku Egoiliarrek, eta agerraldia egin zuten, Donostia Ospitaleko sarrera nagusian, euren egoera salatzeko. AMAIA PORTUGAL-IRUTXULOKO HITZA

**OSASUNA** > BARRUKO MEDIKU EGOILIARRAK GREBAN

# Lan ordu asko eta soldata urria Barruko Mediku Egoiliarren kezka

**LAN BALDINTZAK** EAEkoak dira guardia luzeen truke Espainian soldata urrienetarikoak jasotzen dituzten BAMEak

**HEZIKETA** Sendagile egoiliarrek beharrezkotzat jotzen dute euren prestakuntza eta formazioa bermatuko dituen kontrola

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

MIR. Orain gutxi, pantaila txikian ikusi dugun telesail bateko izenburua baino zerbait gehiago esan nahi dute hizki horiek. *Medico Interno Residente*-ren laburdura da; euskaraz, Barruko Mediku Egoiliarrak (BAME), hain zuzen ere.

Barruko Mediku Egoiliarrak tituludun sendagileak dira; medikuntzako lizentziatura amaitu eta Espainia osorako oposaketa azterketa gainditu ostean, etorkizuneko sendagile espezialista izateko prestatzen ari direnak. Izan ere, 1995etik, derrigorrezkoa da espezialitatea egitea. Baina, euren espezialitatean ez ezik, besteetatik ere izaten dute ikasteko aukera. Osasun zentroetan, larrialdi zerbitzuetan, ospitaleko gela batean, ebakuntza gelan... aurkituko ditugu lanean.

Askok uste duen arren medikuntzako ikasle direla, EAEko 8.700 mediku egoiliarrak osasun asistentziaren oinarria dira, batik bat, ospitaleetan; ohiko lantaldeen %30-40 osatzen dute, eta larrialdi zerbitzuetan %80-90 dira BAMEak.

**GUARDIA LUZEAK**

Telebistan ikusi genuen lantalde gaztea ospitalean lanean. Amaitu zen telesaioa, eta baita ondo amaitu ere: denok pozik, arazo guztiak gaindituta, eta mediku onenen pare.

Sendagile moduan, onak dira gurean lanean dihardutên Barruko Mediku Egoiliarrak ere, baina, telebistan ez bezala, lanari dagozkion arazoak, behintzat, ez dituzte gainditu: 24 orduko guardiak egiten dituzte, eta hurrengo eguneko lan jardunarekin bat eginez gero, 32 orduz jarraian lan egin dezakete. Kontuan hartuta hilabetean lau, bost edo sei guardia egin behar izaten dituztela, 70 lan ordutik gorako asteak ere izaten dituzte, batzuetan. Barruko Mediku Egoiliarrak biltzen dituen Amireus elkarteko kide da Ainara Irarreta, eta, horren gainean, zera esan digu: "Zerbitzu batzuetan, ez dute begi onez ikusten guardien ostean libre hartzea. Beraz, eskatzen dugu hori arautzea. Izan ere, egoiliarrak garen arren, guk ere behar dugu atsedenerako denbora, egoki lan egiteko".

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Horri gehitu behar zaio duten erantzukizunerako jasotzen duten soldata urria: Espainiako Estatuko osasun arloko soldatarik baxuena dute EAEko egoiliarrek, Zeuta eta Melillarekin batera: zazpi euro guardiako ordu bakoitzeko. Beste erkidego batzuetan, mediku egoiliarrek ia EAEkoen bikoitza kobratzen dute, Katalunian, esaterako.

Hirugarren arazo nagusia heziketa edo prestakuntzari dagokio. Amireusko kide Ainara Irarretak azaldu digunez, "beharrezkotzat jotzen dugu gure formazioa eta irakaskuntza ziurtatuko lituzkeen nolabaiteko kontrol bat egitea Osakidetzak edo Osasun Ministerioak. Izan ere, plaza hartzen dugun momentuan, hainbat puntu betetzea eskatzen da, eta hori betetzen dela ziurtatu beharko lukete. Horretarako, irakasleei pizgarriak eman beharko lizkiekete, gure prestakuntza egokia bermatzeko. Bestalde, eskatzen dugu prestakuntzan Osakidetzan emandako urteak aintzat hartzea".

Egoera horretan, etorkizuna ez dute batere argi espezialista izateko gertatzen ari diren sendagileek. Lanpostua ez daukate ziurtatuta, eta batzuek hartu dute erabakia beste autonomia erkidego batzuetara zein atzerrira lanera joateko, baldintzak hobeak direlako.

**GREBA MUGAGABEA**

Beste batzuek, kanpora joan gabe, bertan geratu eta grebari ekin zioten egubakoitz eguerdian, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ospitaleetan, Barruko Mediku Egoiliarrak biltzen dituen Amireus elkarteak deituta. Aste bukaeran, egun osoko greba egin zuten eta, Amireusen esanetan, grebaren jarraipena %90 eta %100 artekoa izan da. Aste barruan, greba 15:00etatik hurrengo goizeko 08:00ak artekoa izango da, hau da, guardia orduak. Greba mugagabea izango dela jakinarazi dute, Osakidetzak euren eskariei erantzuna eman bitartekoa, alegia.

Gurean, ordea, asteburuan behintzat, ez dute bat egin grebarekin ibarrean dihardutenBarne Mediku Egoiliarrek. Eskualde Ospitaleko mediku zuzendari Chus Mongelosek hala adierazi digu: "Gurean, Familia Mediku espezialitatea egiten ari diren hamar sendagile dauzkagu. Eurek greba planteatu duten moduan, Eskualde Ospitalean, larrialdietako guardietan bakarrik izango du eragina, eurek bertan jarduten dutelako. Hala ere, Barne Mediku Egoiliarrek aurrez esan ziguten grebako lehen asteburu honetan ez zutela bat egingo deialdiarekin; hortaz, ez da ezertan igarri, oraingoz. Orain erabakiko dute aurrerantzean zer egingo duten, grebarekin bat egin ala ez. Baiezko kasuan, berrantolatu egin beharko genuke larrialdi zerbitzuko guardiako lantaldea. Guardiak Barne Mediku Egoiliarrek bete ezean, mediku adjuntuek egitea litzateke aukera bat".

Hala ere, Osakidetzak jakinarazi du gaixoek ez dutela igarriko grebaren oihartzunik, mediku egoiliarrak ordezkatu egingo dituztelako.

**NEGOZIAZIOA ETA MOBILIZAZIOAK**

Bitartean, Amireus elkartekoak baldintzak negoziatzen ari dira Osakidetzako arduradun nagusiekin. Eguenean egindako bileran, Osakidetzak honako eskaintza jarri zuen mahai gainean: zaintza aldien diru sariak %35 eta %64 artean igotzea, prestakuntza urteen arabera.

EAE-KO BARRUKO MEDIKU EGOILIARREN ESKARIAK

**> FORMAZIOA**
- Egoiliarren lehenengo urtetik lanbide-karrerara sarbidea.
- Tutorea egoiliarrek eurek aukeratzeko eta ebaluatzeko eskubidea.
- Lan orduetan lan egiteaz gain, ikasteko aukera.

**> LAN BALDINTZAK**
- 35 orduko lan astea.
- Guardiak bukatutakoan, libre geratzeko aukera.
- Guardiak kontuan hartuta, astean gehienez 48 lan ordu.
- Astean 36 orduko atsedena jarraian. Atsedena kobratu.
- Gauean lan egin eta gero, hurrengo atsedeneko lan eguna kobratu.
- Amatasun baja eskubidea.

**> SOLDATA**
- Osakidetzak ordaindu beharrekoak urtarriletik ordaindu, ez zatika.
- Guardiakoa lan ordu normal moduan ordaindu 2007ko urtarriletik. (Guardiako ordua 7, 82 euro kobratzen dute gaur egun).
- Esklusibotasuna ordaintzea. Egoiliarrek esklusibotasun klausula daukate sinatuta Osakidetzarekin, baina trukean ez dute ezer jasotzen.

Irarretak dio ez dela gauza bera zazpi euroren %64 edo 1.000 eurorena: "Igoera eskaini digute, baina eskatutakoa baino txikiagoa. Bestalde, sententzia bidez irabazita dugun diru kopuru bat, oraindik kobratu ez duguna. orain kobratuko dugula esan digute".

Astelehenean. Gasteizera joango dira Amireusekoak, eta negoziazioekin jarraitzea da euren nahia. "Sindikatu ez bagara ere, zuzenean negoziatu nahi ditugu, besteak beste, heziketari dagozkion puntuetan konpromiso zehatzak har ditzaten", diosku Irarretak. Bestalde, arazoaren berri jendeari emateko, zapatuan agerraldia egin zuten Anoetan eta, konponbiderik ez dagoen bitartean, egunero bilkurak egingo dituzte ospitale nagusietako atarietan, 15:00etan. Martitzenerako ere manifestazioa iragarri dute. Bilbon izango da, 18:00etan.

Medikuen hezkuntza egokia gure osasunarendako oinarrizkoa delako, gauzak konpondu artean jarraituko dute greban.

**Arantzazu Ugarte** > Barruko Mediku Egoiliarra

## "Ordu gehiegi lan egiten ditugu jarraian, eta soldata eskasaren truke"

**I.A.** > OÑATI

**Familia Mediku espezialitatea egiten ari da Arantzazu Ugarte oñatiarra. Hirugarren urtea du, eta Oñatiko osasun zentroan eta Eskualde Ospitalean dihardu.**

**Zer dela eta zaudete greban?**

Arrasateko ospitalean dihardugun barne mediku egoiliarrok ez dugu bat egin grebarekin. Asteburuan, larrialdietako sendagileen oposaketak egon dira, eta guk larrialdietan egiten dugu lan. Hemendik aurrera, barne mediku egoiliarron eskariak bete ezean, baliteke gu ere grebara joatea. Grebaren arrazoia da, batetik, gure lan jarduna gehiegizkoa iruditzen zaigula –batzuetan 24 ordu egiten ditugu jarraian, hurrengo egunean lanean jarraituz; eta, bestetik, jasotzen dugun soldata eskasa.

**Ezberdintasunak daude mediku egoiliarron artean?**

Autonomia erkidegoen arabera, aldatu egiten dira soldatak. Bestalde, zerbitzu batean edo bestean jardun, arauak ere ezberdinak dira. Kontua da arauak ez daudela garbi idatzita. Esaterako, ez dago zehaztuta guardien ostean libre hartu dezakegun ala ez. Beraz, eskatzen dugun gauzetariko bat da araudia zehaztea eta dekretua abian jartzea.

**Nolako erantzuna espero duzue?**

Kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan, larrialdi zerbitzuko jardunaren ehuneko handi bat barruko mediku egoiliarrok betetzen dugula eta grebak larrialdietan izango duela eragina, hau da, guardia orduetan, berandu barik erantzunen bat jasoko dugula espero dut. Izan ere, gure tokia betetzeko, lizentziatutako eta erresidentzia amaitutako sendagileak hartzea sekulako dirutza da Estatuarentzat. Gainontzean, goizez osasun zentroan egiten dut lan nik eta, greban egon arren, goizeko ordu horietan, lan egingo dugu denok.



Familia mediku espezialitatea egiten dabil Ugarte. LEIRE KORTABARRIA

H***
AZKOAGA
ENEA

Laster irekiko dugu-eta

Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelak langileak behar ditu postu hauetarako:

- Harrera-lekua
- Sukaldea
- Kafetegia
- Garbiketa....

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
45 posta-kutxa
20540 Eskoriatza
Edo posta elektronikoaren bitartez:
azkoagaenearh@gmail.com

**EKONOMIA** > ENPRESENDAKO FORMAKUNTZA EKINTZAK

# Merkatariei eta enpresaburuei zuzendutako ekintzak daude asteon

Bihar, martitzena, komertzioen oinordekotzaz berba egingo dute Arrasaten

Bergaran, Elkargik antolatuta, eskualdeko enpresendako jardunaldiak daude




**MERKATARIEN ERRETIROA** Denda asko ixten ari dira, ugazabek erreleborik ez dutelako. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Enpresaburuek, batez ere familia arteko enpresak dituztenek, formaziorako aukera bikaina dute datozen egunotan. Izan ere, enpresa txiki eta ertainei zuzendutako bi motatako ekintzak daude gaur, astelehena, hasita.

Hala, batetik, oinordekotzaren hitzaldia entzuteko aukera izango dute ibarreko merkatariek bihar, martitzena, Arrasaten, GATC komertzioari laguntzeko elkarteak eta herriko merkatariek. Torrent i de Deu kontsultora katalaneko Jon Alfons Torrent eta Mercè de Deuk egingo dute hitzaldia. GATCeko Unai Kortabarria arduradunak azaltzen duenez, “datozen urteotan, gero eta komertzio gehiago egongo da ugazabak erretiratzeko prozesuan, eta komertzio askok ixtearen arrazoia errelebo falta da”. Hitzaldian, horri aurrea hartzeko planifikazio eta formakuntza aholkuak emango dituzte. Gutxienez, eskualdeko 15 komertzioko 22 arduradun egongo dira. Argibide gehiago GATCen lor daiteke (943 70 30 90).

**ELKARGIREN HITZALDIAK**
Bestalde, bigarren urtez, finantza jardunaldiak antolatu ditu Bergaran Elkargi Elkarrekiko Garantiaren Elkarteak herri horretan duen bulegoak. Gaur, astelehena, izango da lehenengo hitzaldia: Merkatuko finantzalineaz eta laguntza onenetara iristeko moduaz hitz egingo du Elkargi EGEko Merkatuko zuzendari Miguel Angel Hernandezek. Enpresen inbertsioak zelan finantzatu eta merkatuko finantzalineak zeintzuk diren azalduko du Hernandezek.

Maiatzaren 14an, familia protokoloaz eta familia enpresen oinordetza prozesuaz berba egingo du Elkargiko Aholkularitza eta Finantza Zerbitzuen saileko zuzendariak, Esteban Herediak.

Hitzaldiok Miguel Altuna institutuan dira, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko, honako telefonoetara deitu behar da: 943 77 70 74 edo 943 30 91 80.

**ZERBITZUAK** > GOIENAREN IRAGARKI SAILKATUAK

# Iragarki sailkatuak norberak argitara ditzake Goiena.net-en

Egunero 2.000 lagunek ikus ditzakete webguneko sailkatuak

Webguneko iragarkiak GOIENKARIAn ere argitaratuko dira

**L.K.** > ARRASATE
Asteleheneko eta egubakoitzeko GOIENKARIAn agertzen diren iragarki sailkatuak, orain, Goiena.net webgunean ere badaude, eta berritasun garrantzitsu batekin: orain, norberak argitara dezake iragarkia webgunean. Goiena.net-en, egunero 2.000 bat bisitari daude, eta 40.000-50.000 bat hilero.

**OSO ERRAZA**
Iragarkia sartzea oso erraza da: *www.goiena.net/sailkatuak* helbidera jo behar da, eta hortik abiatzen da. Euskaraz, modu txukunean eta hitz gutxitan idaztea eskatzen da, eta telefono bat ipintzea. Posta elektroniko helbide bat ere sartu behar da, eta egiaztapen mezu bat jasoko du gero bidaltzaileak; helbide hori ez da argitaratuko. Sailkatua GOIENKARIAn ere agertuko da.

Sistema horrez gain, iragarkiok helarazteko lehengo bide berberak daude: 943 25 05 01 zenbakira deituta edo *sailkatuak@goiena.com* helbidera idatzita.




**INTERNETEN** Goiena.net-en, iragarkiendako tartea dago orain. JOSETXO ARANTZABAL


Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa
PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Telleria 23, D5 pabilioia
**Labegaraieta Industrialdea BERGARA**
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com


**HAUTESKUNDEAK 07** > ESPAINIAKO AUZITEGI GORENAREN EPAIA

# Ibarreko Abertzale Sozialisten zerrenda guztiak eta EAE-ANVren bi ezeztatu dituzte

EAE-ANV alderdiak Oñatin eta Aretxabaletan aurkeztutako zerrendak Auzitegi Gorenak balio gabe utzitakoen artean daude

Bi alderdiei gaur bukatzen zaie Auzitegi Konstituzionalean babes helegitea aurkezteko epea, baina zail ikusten dute aldeko erabakia

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Debagoieneko Abertzale Sozialisten zerrenda guztiak, eta EAE-ANVrenak Oñatin eta Aretxabaletan, ezeztatu egin ditu Espainiako Auzitegi Gorenak; baita bi alderdiok Batzar Nagusietarako zituzten zerrendak ere. AS ezeztatuta geratzen zela zapatuan jakinarazi zuen auzitegi horrek; ANVren gaineko erabakia, ordea, domekako 06:30 inguruan zen kalean, eta horixe salatu du, besteak beste, EAE-ANVk: epez kanpo egin dela epaia. Auzitegi Gorenak Estatuko Fiskaltzak eta Abokatuak, biek, inpugnatutako EAE-ANVren zerrendak utzi ditu ezereztuta: 133, hain zuzen ere.

Haserre eta atsekabetuta daude bai alderdi bateko bai besteko Debagoieneko ordezkariak. Hala, Arrasateko Abertzale Sozialisten zerrendaburu Xabier Zubizarretak dio, epaia hori izanda ere, ezker abertzaleak "orain arteko ildotik" jarraituko duela. "Ahalegin izugarria egin dugu prozesua aurrera eramateko, eta orain, horri ere ezezkoa eman diote", gaineratu du.

Oñatiko EAE-ANVko zerrendaburu Marijo Altubek "erabaki guztiz politikoa" dela salatu du, eta gatazkari irtenbidea emateko "ate guztiak itxi" dizkietela gaineratu du. "Azkenean, kaltetua herria da. Beste lau urtez ezker abertzaleko ordezkaririk gabe geratuko da Oñati", zioen, haserre eta nahigabetuta.

**KONSTITUZIONALERA**

Aukera gutxi geratu zaizkie bai alderdi bateko bai besteko kideei, eurek onartzen duten moduan. Hala, gaur, astelehena, bukatzen zaie Espainiako Auzitegi Konstituzionalean babes helegitea aurkezteko epea. Hala eginez gero, auzitegi horrek eguneko gauerdira arteko epea izango du erabakitzeko, eta erabaki hori bai izango dela behin betikoa, kanpaina egubakoitzean hasten da-eta.

EAE-ANVko Marijo Altubek dioskunez, hala ere, "oso zaila izango da Konstituzionalak Auzitegi Gorenaren aurkako erabakia hartzea".

## PPren inpugnazioek, eraginik ez gurean

Berdintasunaren legea betetzen ez dutela argudiatuta, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko zerrenda asko inpugnatu egin ditu Alderdi Popularrak. Herenegun, zapatua, 20:00ak inguruan aurkeztu zituen inpugnaziook leku bakoitzeko auzitegi arruntean: Debagoienaren kasuan, Bergarakoan. Horrek ez ditu inpugnaziook onartu; hortaz, ibarreko egoera ez da aldatuko. Aretxabaletako EAJ eta Ezker Batua-Berdeak-Zutikena; Arrasateko Aralar eta Abertzale Sozialistena; Bergarako EArena eta Oñatiko EA eta Abertzale Sozialisten zerrendak inpugnatu zituen Alderdi Popularrak.





JOSETXO ARANTZABAL

## Euskal Herriko zazpi alarde etorri ziren atzo Antzuolara, eta bostek erakustaldia egin zuten

Euskal Herri osoko alardeen bilgune izan zen Antzuola joan den aste bukaeran. Ekitaldi nagusiak atzo, domeka, egin zituzten, hainbat alarderen parte-hartzearekin.

Hala, goizean, honako alardeek euren burua aurkeztu eta alardea azaldu zuten: Elorrio (Bizkaia); Markinez (Araba); eta Legazpi, Tolosa, Irun eta Hondarribiako alarde mistoa, Irungo alarde tradizionala, eta Antzuola. Irungo alarde mistoaren eta tradizionalaren inguruan ikusmin handia bazegoen ere, ez zen inongo ika-mikarik egon, eta errespetu osoz jokatu zuten bi taldeek.

Arratsaldean izan zen ekitaldi ikusgarriena: Antzuola, Markinez, Elorrio, eta Irun eta Hondarribiako alarde mistoek erakustaldia egin zuten. Horkoak dira argazkiok: ezkerrean, Elorrioko alardekoak eta, ondoan, Antzuolakoak, kanoiari eragiten; eskuman, Markinezekoak, oroigarria jasotzen.

Aretz
Plater konbinatuak • Ogitartekoak • Hanburgesak
Pizzak • Paellak eramateko
Zeliakoentzako ogitartekoak
Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



Euskal Herriko alardeen gaineko mintegia egin zuten asteburuan Antzuolan. Zapatuan, Antzuolako alardearen lehena, oraina eta geroa izan zituzten berbetarako gai. Izan ere, Antzuolako Udalaren aginduz, Eusko Ikaskuntzako kide Margaret Bullen eta Xabier Kerexetak ikerketa egin dute gaiari buruz, eta ikerketaren emaitzak jakinarazi zituzten

**Margaret Bullen** > Antropologoa

# "Antzuolarren gehiengoak ez du identifikazio emozionalik alardearekiko"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

**Ingelesa da Margaret Bullen antropologoa eta, orain, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Antropologia sailean dabil. Eusko Ikaskuntzako kide ere bada, eta horren bitartez ikertu du Antzuolako alardea, herritarren iritzia jasotzeko; alderdi soziala landu du, batez ere.**




Margaret Bullenek Xabier Kerexetarekin batera egin du Antzuolako alardearen gaineko ikerketa. I.A.

**Nondik dator Euskal Herrian alardeak egiteko ohitura? Eta Antzuolan?**

Milizia foraletatik datorren kontua da. Horiek desagertu ondoren, aldaketak izan dira alardeetan eta, pixkanaka, eguneratuz joan dira. Antzuolan alardea pixka bat ahuldu egin dela ikusi dugu halako baten, parte-hartzea, batez ere. Hori izan da, hain zuzen ere, ikerketa egiteko arrazoietako bat.

**Nola egin duzue Antzuolako alardearen gaineko ikerketa?**

Hogei lagun elkarrizketatu ditugu, baina elkarrizketa sakonak izan dira. Horretarako, garrantzitsua da lagin adierazgarria aukeratzea. Helburua izan da Antzuolako bizitza soziala islatzen duen lagina sortzea. Aukeratu ditugu Mairuaren alardean parte hartzen dutenak; parte-hartze zuzenik ez daukatenak –dantzariak, musikariak...–; herriko bizitza kulturala islatzen dutenak; eta beste elkarteetako ordezkariak –euskara elkartea, hirugarren munduari laguntzen diotenak...–; baita alderdi politikoetako ordezkariak ere. Galdera irekiak egin dizkiegu, eta horrek eman digu aukera euren iritzi zabala jasotzeko.

**Zein izan dira ikerketatik ateratako ondorio nagusiak?**

Gehiengo zabala ados dago esatean alardeak jarraipena behar duela, baina aldaketaren beharra ere baduela. Beraz, interesatzen zaiguna da jakitea zer aldatu behar den, eta nola.

**Orain artean, zein dira Mairuaren alardeak izan dituen aldaketak?**

Kontatu didatenaren arabera, Mairuak, lehen, durbantea zapaltzen zuen eta, une jakin batean, oso ekintza zakartzat jo zutenez, zati hori kendu egin zuten ekitalditik. Beste aldaketa garrantzitsu bat berbaldia euskaratzea izan zen. Bestalde, Juan Antonio Urbeltze folklore adituaren laguntzaz, jantzietan ere izan zen aldaketarik.

EGUNA

**"Proposamenetako aldaketa bat eguna da; jaietako egitarautik kanporatzea komeni da, antzuolarren ustez"**

EZBERDINTASUNAK

**"Antzuolako alardeak kutsu serioa dauka; besteetan, umorea eta festa giroa dira nabarmen"**

ETORKIZUNA

**"Antzuolan, badago borondatea alardeak jarrai dezan; gure ikerlana borondate horren lekuko da"**

**Jendearen ustez, zer da aurrerantzean aldatu beharrekoa?**

Proposatutako aldaketetako bat alardearen eguna bera da. Jaietako egitarautik kanporatzeari komenigarria deritzote elkarrizketatutako antzuolarrek; horrela, garrantzia irabaziko luke. Horretaz gain, arratsaldeko ekintza puntual izatetik egun osoko ekitaldia izatera pasatzea egokia litzakeela esan dute.

Formari dagokionez ere, proposatu dute aldaketarik; antzerki itxura ematea ekitaldiari.

Parte-hartzea bultzatzeko, bi talde egitea ere proposatu dute; antzuolarrena, bat, eta mairuena, bestea. Horrela, mairuaren papera duinduko litzatekeela diote. Orain artekoa ez da borondate txarrez egin, baina, gizartea aldatzen ari den neurrian, mairuaren papera ere aldatu egin beharko litzateke. Esate baterako, preso moduan azaldu beharrean, errege moduan eta zaldi gainean azaltzea eta, bakarrik izan beharrean, lagunekin.

Azken baten, eztabaidatzekoa da nola eutsi dakiokeen tradizioari, edo aldaketa zenbateraino koa izan daitekeen, elkarbizitzarako keinu bat eginez.

**Nolako harrera du, antzuolarren artean, alardeak?**

Antzuolarrek uste dute ekitaldi garrantzitsua dela, eta ez dute alardea galdu nahi. Baina gehienek ez dute identifikazio emozionalik alardearekiko. Familiatik ohitura jaso dutenek gertuago sentitzen dute, beharbada, baina herrian, oro har, ez dago aldeko sentimendu sakonik.

**Zein dira Mairuaren alardeak beste herrietako alardeekiko dituen ezberdintasunak?**

Antzuolan, alardeak ez du egun zehatzik egutegian. Jaietako zapatuan egiten da; beraz, aldakorra da, beste herrietan ez bezala. Bestalde, denborari dagokionez ere, beste herrietan baino laburragoa da. Baina Iparraldeko alardeak ere laburrak dira; herri txikiak izanik, jende gutxik hartzen du parte. Gainera, Iparraldeko alardeak erlijioarekiko lotura nabarmena dute, Antzuolan ez bezala. Horretaz gain, Antzuolako alardeak kutsu serioa dauka; besteetan, umorea eta festa giroa dira nabarmen.

**Beste herri batzuetan, polemika izan da emakumeen parte-hartzeagatik. Antzuolan, ordea, parte hartzen dute.**

Bai: danborra jotzen dutenen artean, badira neska eta mutil gazteak. Bestalde, oraingoz, ez da emakumeen iniziatibarik izan eskopetari moduan parte hartzeko; nahi balute, ez dut uste arazorik egongo litzatekeenik. Gainera, beste herri batzuetan ez bezala, Antzuolan ez dago nahikoa jende alardean parte hartzeko, eta uste dut ondo hartuko lituzketela emakumeak.

**Gazteek hartuko dute parte alardean etorkizunean?**

Zapatuan, gazteekin egitekoak ginen mahai-inguru bat, eurek alardearen gainean duten jarreraren berri izateko. Baina, gazteek eurek etorri ezina azaldu dutenez, erabaki dugu, aurrerago ,alardearen gaineko inkesta bat egitea gazteei, eta, emaitzak jaso ondoren, gazteekin eztabaida egitea. Izan ere, alardearen etorkizunerako, gazteak dira giltza, eta komeni da euren ahotik jasotzea alardeak nolako aldaketak behar lituzkeen. Aldaketak egiteko, ezinbestekoak dira gazteen proposamenak.

**Etorkizunean, Mairuaren alardea galdu egingo da ala aldatu, besterik ez?**

Nik uste dut aldatu egingo dela. Antzuolan, behintzat, ikusi dut badagoela borondatea alardeak jarrai dezan. Ikerlan hau, esaterako, borondate horren lekuko da. Bilakaera ez da erraza izango, eta bat-batean, goizetik gauera ez dute herritar guztiek parte hartuko Mairuaren alardean. Baina inork ez du uste galtzear dagoen ohitura denik, eta herritarren, Udalaren eta Mairuaren Alardearen Elkartekoen elkarlanarekin, uste dut bultzada jasoko duela ospakizunak urte batzuen buruan.

## oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

**> Oporrak brigadista lanak eginda pasatzeko argibideak**

Askapena taldeko kideek azalduko dute munduko hainbat herritara brigadista moduan joanda oporrak zela pasatu beste era batera. Loramendi elkarteak gonbidatuta etorriko dira, maiatzaren 10ean, 19:00etan, udaletxe zaharrera.

BERGARA

**> 1965ean jaiotakoen kinto afaria**

Maiatzaren 19an izango da, 22:00etan, Txarrantxa jatetxean. Aurretik Pol-Polen batuko dira, 19:00etan. Izenematea, Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan. Argibideak: 629 56 29 25 (Karlos) edo *ketxaniz@euskalnet.net*.

BERGARA

**> Udalekuetan izena emateko epea zabalik dute ume eta gaztetxoek**

Maiatzaren 11ra arte egongo da zabalik. Izena emateko, jo Xipizarok Agorrosinen duen bulegora, 17:00etatik 19:00etara. Plaza mugatuak dira eta 1993-2004 urte bitartekoei zuzenduta daude.

DEBAGOIENA

**> Degabelek ohiko batzarra deitu du**

Debagoieneko abeltzainen elkarteak Arrasaten egingo du aurten urteko batzarra, hilaren 13an. Lehen deialdia 11:30ean da; bigarrena, 12:00etan.

BERGARA

**> Bergarako Orfeoiak batzarra egingo du**

Bergarako Orfeoiak urteko batzar orokorra egingo du eguenean, hilak 10. Zabalotegin batuko dira, 21:00etan, lehenengo deialdian, eta 21:30ean, bigarrenean. Bazkide eta kantariei dei egiten diete joateko.

ARETXABALETA

**> Udalekuetan begirale jarduteko izenematea**

Maiatzaren 17ra arte egongo da zabalik izenematea. Horretarako, bidali curriculumak *kultura@aretxabaleta.net* helbidera edo kultura etxera (Iralabarri plaza 13).

ELGETA

**> Zabalik dago ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea**

Ekainaren 10era arte dago zabalik ibilgailuen zerga ordaintzeko epea. Udalak jakinarazten du helbideratutako ordainagiriak bihar, martitzena, zordunduko direla, baimendutako kontuetan. Helbideratuta ez daudenak posta arruntaz bidaliko dira zergadunen helbide fiskalera.

ARETXABALETA

**> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJk**

Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo laguntza behar dutenendako zerbitzua jarri du EAJk batzokian. Interesa duten guztiak astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:30era hurrera daitezke.

BERGARA

**> Ezker abertzaleak bulegoa jarri du posta bidez bozkatzeko**

Posta bidez bozkatu nahi duten guztiendako jarri dute bulegoa. Artatse elkartean dago, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00 –zapatuetan, goizez bakarrik. Maiatzaren 17a da posta bidez bozkatzeko azken eguna.

BERGARA

**> 1963an jaiotakoen kinto bazkaria**

Maiatzaren 12an egingo dute, Torrekua erretegian, 15:00etan. Aurretik, plazan elkartuko dira, 13:00etan. Izena emateko azken eguna maiatzaren 10a da. Horretarako, jo Ariznoa tabernara edo Torrekua erretegira. 10 euro aurreratu behar dira.

OÑATI

**> UEUra joateko beka eska daiteke**

Baldintzak dira Oñatin erroldatua egotea eta ikasle edo langabea izatea. Ikasleen kasuan, unibertsitateko matrikularen bidez egiaztatu beharko dute baldintza hori, eta langabeen kasuan, langabe txartelarekin. Horrekin batera, ikastaroaren matrikula egina behar du eskatzaileak eta egiaztagiria erantsi behar dio udaletxean egiten duen eskariari.

BERGARA

**> Pazkoetan txosna jartzeko eskari epea zabaldu du Udalak**

Herriko irabazi asmorik gabeko talde edo elkarteek egin dezakete eskaria. Eskaerok aurkezteko mugaeguna maiatzaren 10a da, 12:00etan.

DEBAGOIENA

**> Oraingo domekan Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu Debagunek**

Debagunek, Debagoieneko euskara elkarteen elkargoak, autobusak antolatu ditu oraingo domekan Senperen ospatuko den Herri Urratsera joateko. Txartelak eskura daitezke ibarreko euskara elkarteen bulegoetan maiatzaren 10a baino lehen. Bulegootan emango dute autobusaren ordutegiaren gaineko informazioa.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



**Oihane Agirre** > GOITBko programazio arduraduna

# Kazetari, gidoigile, kameralari... beharrean

Laster, tokiko telebista digitalaren lizentziak banatuko dira. Euskal Autonomia Erkidegoan, 60 toki telebistarendako lekua bakarrik izango da. Gure eskualdeari dagokionez, lau tokiko telebista baimenduko dituzte modu digitalean jarduteko. Goienak bere eskaria egin du GOITBk digitalean emititzeko. Eta oraingo astean jakin dugu beste hiru eskari ere egin dituztela, guztiak komunikazio talde handiena.

Lehiaketara aurkezteko, zenbait baldintza bete behar ditugu; tartean, euskarazko emisioena. Orain arte, ez dugu euskararik entzun Localia edo Vocentoren telebistetan. Zein izango ote da beraien proposamena?

**"GOITBn, 'Zu kazetari' izeneko tarte berri bat eskainiko dugu laster"**

Hala ere, egoera berri honek badu bere alde positiboa. Lehiakortasuna beti da onuragarria, norberaren jardunean uneoro berrikuntzak egiteko. Horregatik, Goiena Telebistan *Zu kazetari* izeneko tarte berri bat eskainiko dugu laster. Izenburuak dioen bezala, herritarrok izango zarete kazetari, kameralari, gidoigile... eta Goiena Telebistak zuek ekoiztutako saioa emitituko du. Animatzen zara?

**> Kataluniako** tokiko **komunikabideen errealitatea gertutik ezagutzeko aukera izan dut, eta aurretik doaz tokiko telebistagintzan. Ehundik gora toki telebista daude bertan. Badugu zer ikasi!**

**> Berrikuntzak azkar datoz, eta telebista ikusteko gailua eta modua aldatu egingo dira: ordenagailuz, sakelako telefonoz... Egoera berrietara egokitzen jakin beharko dugu**

## debagoiendarrak kanpoan

**Iñigo Arregi** > Oñati

# "Mallorka ezagutzera datorrena barrualdeko herrietara eramaten dut"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Iñigo Arregi oñatiarrak urte asko daramatza herritik kanpo; Bilbon, Tenerifen, Belgikan eta Mallorkan bizi izan da. Astrofisikoa da, izatez, Arregi; Eguzkia eta Eguzkiaren atmosfera aztertzen ditu, besteak beste, oñatiarrak.**

**Lehenengo, Bilbon; gero, Tenerifen, Tenerifetik Belgikara eta, orain, Mallorkan. Noiztik Oñatitik kanpo?**

1992an Bilbora joan nintzen, Fisika ikasketak egitera. Han, hiru urte egin nituen; gero, Tenerifera joan nintzen, Astrofisika alorrean espezializazioa egitera. Doktoretza Mallorkan egin nuen, 1998 eta 2003 urte bitartean. Hurrengo bi urteak Belgikan egin nituen, ikertzaile lanetan, eta orain, berriro, Mallorkan nago.

**Fisika alorrean egiten duzu lan. Zein da, bada, zure espezializazioa?**

Fisikak arlo asko jorratzen ditu, eta horietako bat astrofisika da; hau da, izarren fisika. Ni astrofisikoa naiz, izarrak aztertzen ditut, baina izar batean oinarritu dut nire lana: Eguzkian. Lurrak duen bezala, Eguzkiak ere atmosfera bat du, eta nire lana Eguzkiaren kanpoaldea, atmosfera, aztertzea da.

Lana egiteko bi modu daude: teoria eta behaketa. Nik lan teorikoa egiten dut.

**Kanpoan bizi arren, Oñatira etortzeko ohitura baduzu. Zenbatean behin egiten diezu bisita familia eta lagunei?**

Nik gura beste ez naiz joaten Oñatira, baina egun seinalatuetan, beti egiten dut bisita. Normalean, urtean hiru aldiz joaten naiz: udan, abuztuko oporretan; Aste Santuan, eta Gabonetan.



GOIENKARIA

**Oñatiarra Mallorkan**

Oñatin jaioa da Iñigo Arregi astrofisikoa, eta Balear Uharteetako Unibertsitatean ari da lanean orain.

**Kanpoan bizi izan zaren urte hauetan guztiotan, zer nabaritu izan duzu faltan?**

Kanpoan nagoenean, gehien, familia eta lagunak nabaritzen ditut faltan. Urte askotan bizi izan naiz Oñatitik kanpo, eta leku eta lagun asko ezagutu ditut; hala ere, etxekoekin beti gogoratzen naiz.

Bestalde, Oñatiko mendiak ere faltan nabaritzen ditut: Urbia eta Aizkorri inguruak. Izan ere, Mallorkan badaude mendiak, baina ez gure inguruan bezalakoak. Eta, azkenik, herriko giroa; kalera irten eta lagunekin egotea asko gustatzen zait, eta hori ere faltan igartzen dut.

**Mallorkara jende asko joango zaizu bisitan. Ze leku ikustea gomendatzen duzu?**

Egia esan, oso Mallorka ezberdinak dira agentzia bidez edo hemengo ezagun batekin ikus daitezkeenak. Turistaz beterik ez dauden lekuetara eramaten ditut lagunak; mendira edo barrualdeko herrietara, adibidez.

**Mendiak faltan nabari dituzula esan duzu, baina, zerura begira egoteko, berdin izango da Oñatin egon edo Mallorkan egon, ezta?**

Bai; gutxi gorabehera, zeru berdina dago Mallorkan eta Debagoienean. Ezberdintasun bakarra eguraldia da. Mallorkan ia egunero ikusten dugu eguzkia, eta Oñatin, zailagoa izaten da berau ikustea.

**kale inkesta**

# Inoiz egokitu zaizu hautes-mahaian egotea? Egokia iruditzen zaizu zozketaz aukeratzea?



**Unai Aranburu**
Langilea
Oñati

Ez, niri ez zait inoiz egokitu hauteskunde egunean mahaian egotea; inguruan, etxekoei eta lagunei ere ez. Aurtengo mahairako zozketa egin da, beraz, aurten ere, zorionez, ez zait egokitu mahaian egotea.



**Susana Azpitarte**
Langilea
Oñati

Ez; zorionez, inoiz ez dut mahaian egon behar izan; etxekoak ere ez. Egokitu ezkero, derrigorrezkoa da joatea, baina ez dut uste ondo ordainduta dagoenik. Hala ere, beharrezko lana da; norbaitek egin behar du.



**Felix Biain**
Langilea
Oñati

Ez, orain arte inoiz ez zait egokitu hautes-mahaian egotea, eta aurtengo zozketa ere eginda dago, beraz, ez zait tokatu aurten ere. Ondo ordainduta dagoen? Ez dakit; hori beharren arabera ikusi beharra dago.



**Daria Lopez**
Langilea
Oñati

Niri ez, baina behin, gure etxean, senarrari egokitu zitzaion ordezko izatea. Egia esan, ez nuke nahiko mahaian egotea. Nire ustez, sistema aldatu egin beharko litzateke eta nahi dutenen artean zozketatu.

**irakurlearen txokoa**

## 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Udalaren efizientzia**

Maiatzeko hauteskundeetan mahaian egoteko deia jaso duen herritar batek bere kexa azaldu digu: "Hauteskundeetarako jakinarazpena helarazteko, berehala etorri dira etxera, baina beste gauza batzuetarako, denbora tarte luzea behar izaten dute. Eskatuko nuke, herritarron eskariei erantzuteko orduan ere, efizientzia bera erakutsi dezatela erakunde publikoek".

BERGARA
**> Autobus geltokiak**

Auto gidari batek, Bergaran aparkatzeko arazoak izan ostean, haserre deitu digu, zera esanez: "Herri barruko autobus geltokietan, lau autok aparkatzeko moduko tokia lagatzen dute, autobusak bertan gelditzeko; askotan, ordea, autobus gidariak ez dira dagokien tokian sartzen, nahiz eta horretara derrigortuta dauden". Autobus gidariei arauak betetzeko eskatu nahi die, "bestela, alperrik daude espazio horiek eurendako gordeta".

ARRASATE
**> Edukiontzia, lurrean**

Arrasateko Otalora Lizentziaduna kaleko bizilagun batek esan digu zabor poltsa botatzera edukiontzira joan eta lurrean aurkitu duela ontzia: "Horrela noiztik dagoen ez dakit, baina ni zapatu goizean joan nintzen eta lurrean zegoen, eta domekan ere, halaxe jarraitzen zuen. Nori dagokio behar den moduan ipintzea?"

**usteak uste**

**Mireia Bikuña**

## Oñatiko kirol instalazioak

Maiatzeko *Kontzejupetik* aldizkarian, Herriko Futbol txapelketako batzordeak idatzitako gutunaren haritik, nik ere Oñatiko kirol instalakuntzen inguruko-ak kontatu nahi nituzke.

Aloña Mendi Kirol Elkarteak 14 sail ditu; Gipuzkoa osoan, kirol gehien mugitzen duen herria da Oñati. Baina, gurean ditugun instalazioak ez daude gure taldeen mailan.

Azkoagain zaharkituta dago aspalditik, eta zer esan, Ibarra futbol zelaiaz? Penagarria da halako zelai batean federatutako partiduak jokatzea. Eta penagarriagoa da partiduak ikustera hurbiltzen direnek esertzeko tokirik ez izatea. Atletismoko kideek ere, gaitza izaten duten bertan entrenatzea.

Ea ba, legealdi berrian, berrikuntzarik izaten dugun.

**zorroztailea**



**Elena Laka**

# Destinu petrala

"Arnaldo Otegi ez dago partehartze politikoko eskubideaz gabetua (…). Alderdi bat legez kanpo ipin daiteke, baina ezin da herritar bat (…), legez kanpo ipini, epai batek delitu baten ondorioz horrela ez badu ezartzen (…). Konstituzioaren barruan, ezin da hori egin".

**Javier Perez Royo**
El País > 2007-05-05



Bederatziehun ikasle ginen Zuzenbideko lehen ikasturtean. Interes pixka bat sortzen zigun irakasgai bakarra, zuzenbide politikoa. Horren barruan, lehen ikasturtean, konparatutako zuzenbide konstituzionala ikasi genuen, bigarrenean 1978ko Espainiako Konstituzioa.

Ikasi genuen Konstituzioak Estatu bateko arau nagusi moduan daukan garrantzia, eta Konstituzioak nola hezur-mamitzen duen Estatu bat. Baita ere nola iritsi zen Espainiako Erreinua "estado social y democrático de derecho" izatera, eta zelako aurrerapauso demokratikoa izan zen oinarrizko eskubideen aldarrikapen bat edukitzea bere baitan, berme juridikoz lagunduta.

Berdintasun eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea, ideologia askatasuna, ohore eta intimitate eskubidea, askatasun eskubidea, ideia askatasuna, elkarteak sortzeko eskubidea, arazo publikoetan parte hartzeko eskubidea, indarrean ez dauden delituengatik kondenatua ez izateko eskubidea… Konstituzioaren muina dira. Irakatsi ziguten ondo babestuta zeudela, eta nahiz eta legeen bitartez garatu, aldarrikapena erabatekoa eta zabala zela. Irakasleek buruan zeukaten Konstituzioaren aurreko errejimena, eta horrexegatik ematen zioten horrenbesteko balioa 1978 urteaz geroztik abiatutakoari.

**"Ikasi genuen Konstituzioak nola hezur-mamitzen duen Estatu bat"**

**"Politikan parte hartzeko eskubide osoa dute espainiar nazionalitatedunek"**

Laurogeiko hamarkadan, eskubideen ortzemuga murriztuz joan zen, hortik aurrera eskubideok garatzen (praktikan mugatzen) zituzten legeen bitartez. Herritarren Segurtasunaren Legeak (Corcuera legeak), askatasunaren eta atxiloketaren arteko muga itzaltsu bat ezarri zuen, askatasun eta legalitate eskubideen kontra erabat. Konstituzioa eskuan, bertan harro jasotako eskubideei men eginez, herritar espainiar batek hautatzeko eta hautatua izateko oinarrizko eskubidea du. Eta eskubide horretaz gabetzeko, delitu batengatik epaitua izana behar du, eta epaian espreski sufragio aktiboko edo pasiboko eskubidea kentzen zaiola adierazia. Horrelakorik ez den bitartean, politikan parte hartzeko eskubide osoa du espainiar nazionalitatedun orok. Bestelakoa Konstituzioaren kontrakoa da. Hori da irakatsi zigutena.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Miren Agirre **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Legarreko pabilioiak botako dituzte, 80 etxe eta, gutxienez, 169 aparkaleku egiteko **> 10**



**> BERGARA**
Zabalotegi eta Bolu artean egin nahi duten errepidearen aurka manifestatu ziren **> 11**



**> ELGETA**
Lau mila lagun inguruk ikusi dute Espainiako Gerraren inguruko erakusketa **> 14**

**ARRASATE** > IKASTAROA

# Motozerra eta sasiak kentzeko makina egoki erabiltzen

Hiru zapatutan egiteko ikastaroa da: apirilaren 21ean hasi zen, herenegun, eta datorrenean

Bederatzi lagun Garagartza auzoan ibiltzen dira tresnak nola erabili ikasten




**EZAGUTU** Tresnak ezagutu eta egoki erabiltzen ikaste hari dira Garagartza auzoan. JOSETXO ARANTZABAL

**EDURNE BURGAÑA** > ARRASATE

Eskualdeko baserri askotan aurki dezakegu motozerra edo sasiak garbitzeko makina bat. Tresna eskuan hartuta, baserritarra lanean ikustea ere ez da harritzekoa. Baina badakite tresna horiek egoki nola erabili? Arrasateko Garagartzako auzo-etxean horren gaineko ikastaroa egiten ari dira bederatzi lagun.

**ISTRIPUAK EKIDITEKO**

Itsasmendikoik eta Arrasateko Udaleko Garapen Estrategiko Sailak elkarlanean antolatutako ikastaroa da. Udal Garapen Saileko teknikari Peio Garaik azaldu duenez, "motozerra eta sasiak kentzeko makinak arrisku handikoak dira. Udal langileek ere erabiltzen dituzte, eta, joan den urrian, eurei zuzendutako ikastaroa antolatu genuen. Helburua lana segurtasunez egitea zen, garantia onenak lortzeko".

Aurreko ikastaroak edukitako eragina ikusita, herritarrei begira beste bat antolatzea erabaki zuten. "Ikastaroa oso erabilgarria izan zen, eta inguruan inoiz istripuak egon izan direla ikusita, arrasatearrentzako beste bat egitea pentsatu genuen", adierazi du Garaik.

Bi makinen erabilera egokia zein den, eta hartu beharreko babes neurriak azaltzen dituzte ikastaroan. Bederatzi ikasle dabiltza parte hartzen, eta horren gainean badu zer esan Garapen teknikariak: "Jende gehiagok parte hartuko zuelakoan geunden. Baina taldea txikia izanda, gehiago ikasten da".

Baserrietan erabiltzen diren tresnak dira, gehienbat, eta "intuizioz" ikasitakoak direlakoan dago Garai. "Jendeak uste du albokoari galdetuta, edo norberak bere kasa ikasita, ondo moldatu eta guztia dakitela. Baina asko dago ikasteko".

Arrasateko Udalean, seihilabetero antolatzen dituzte ikastaroak, eta berriro egiteko asmoa dutela azaldu du Peio Garaik.

**Juanjo Camino** > Irakaslea

## "Profesionalak ez dira etortzen; uste dute dena dakitela"



JOSETXO ARANTZABAL

**E.B.** > ARRASATE

**Motozerra eta sasiak mozteko makinen gaineko ikastaroa egiten ari dira Arrasateko Garagartza auzoan. Juanjo Caminok irakasten die tresnok egoki erabiltzen.**

**Zer da ikastaroan irakasten duzuna?**

Hiru asteburutan, segurtasuna bermatzeko, bi makina horiek nola erabili irakasten dut. Edozeinek hartzen ditu, eta jende askok istripuak izan ditu. Hori horrela, prebentzio aldetik jakin beharrekoak irakasten ditut.

**Zer nolako jendeak parte hartu du ikastaroan?**

Bederatzi pertsonako taldea daukagu Arrasaten. Normalean, horrelako ikastaroetan parte hartzen dutenek sustoren bat hartu dituztelako izaten da. Arrastoak ere badituzte gorputzean.

**Baserri mundukoak dira ikasleak?**

Eguneroko lanean horrelako tresnak erabiltzen dituztenak dira ikastaroko parte-hartzaileak. Profesionalak ez dira etortzen; uste dute dena dakitela, eta horregatik sortzen dira gero arazoak. Gainera, istripuak ondokoari tokatzen zaizkiela uste dugu denok, baina beti ez da horrela izaten.

**Gizon eta emakumeek parte hartu dute.**

Halaxe da, bai. Gainera, ikastaro honetan parte hartu dutenak oso jatorrak dira, eta ikasteko gertu etorri dira.

**OBRAK** > ETXEBIZITZAK

# Legarreko pabilioiak bota eta 80 etxebizitza eraikiko dituzte

Etxebizitzekin batera, gutxienez, 169 aparkaleku ere egin beharko dituzte; guztira, 7.622 metro koadroko orubea erabiliko dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gobernu Batzarrak onartu egin du, hasieran, behintzat, Legarre ingururako proiektua. Horren arabera, Legarren, gaur egun industria pabilioiak dauden orubean, asko jota, 80 etxebizitza eta, gutxienez, 169 aparkaleku eraikiko dituzte. Etxebizitza bakoitzak, batez beste, 108 metro koadro izango ditu. Etxebizitzak sei solairutan banatuko dituzte; horrez gainera, eraikinak bi soto, soto erdia eta behebarrua izango ditu.

Proiektu hori jendaurrean ipiniko du Udalak, baina, hori egin aurretik, falta den dokumentazioa eskuratu behar dute. Horren ostean aurkeztu ahal izango dira alegazioak.

Proiektua egiteko, Legarreko pabilioi guztiak bota egingo dituzte, ordenazioz kanpo daudelako.

**DEBA IBAIA BERRESKURATU**

Orube horretan, 7.622 metro koadroa erabiliko dituzte proiektua egiteko. Horietatik 5.712 metro koadro etxeak eraikitzeko erabiliko dituzte, eta beste 1.910, bestelako lanetarako. Horien artean, besteak beste, Deba ibaia ekologikoki berreskuratu egingo dute. Horrez gainera, ibaiaren ubidea ahalik eta gehien txikitzen ahaleginduko dira, modu horretara, ahalik eta espazio gehien lortzeko.

Behin hori guztia egin eta gero, inguru guztia eraikiko dute errekara begira. Horrez gainera, hango zirkulazioa eta oinezkoendako ibilbideak berrantolatu egingo dituzte. Lan horien artean, besteak beste, biribilgune berri bat eraikiko dute Gipuzkoa etorbidean, Santa Marina auzora igotzeko dagoen bidegurutzean.



**LEGARRE** Pabilioia bota eta etxebizitzak eraikiko dituzte orubean. U.M.

**HAUTESKUNDEAK 07** > ABERTZALE SOZIALISTAK

# Herritarren babesa jaso zuten Abertzale Sozialistek

Auzitegi Gorenaren erabakia baino lehenago, egubakoitzean, ASBren zerrenda aurkeztu zuten

**A.G.** > ARRASATE

Abertzale Sozialisten Batasuneko zerrendak atzera bota ditu Espainiako Auzitegi Gorenak; baina, horren aurretik, Arrasateko ordezkariek euren asmoak aurkeztu zituzten, egubakoitz arratsaldean, Kulturaten; eta herritar askoren babesarekin egin zuten hori, aretoa lepo bete zen-eta. Preso arrasatearren senideak ere igo ziren tarimara, presoon irudien kartelekin.

Xabier Zubizarreta zerrendaburuak bake prozesua "blokeatuta" dagoela esan zuen, baina ezker abertzaleak konponbiderako urratsak ematen jarraituko duela. Orain arteko ildo beretik jarraituko dutela berretsi du Zubizarretak Auzitegi Gorenaren epaia jakin eta gero ere.




**HITZAK** Xabier Zubizarreta, berbalari ekitaldian. GOITB

> ETXEBIZITZA

## Udalaren etxebizitza politika salatzeko ekitaldia deitu dute

"Udalaren etgxebizitza politika negargarria" salatzeko, kontzentrazioa deitu du Ezker Batua Berdeak-Zutik koalizioak. Etzi, eguaztena, batuko dira Herriko plazan, 19:00etan.

Ekitaldian, denondako etxebizitza eskatu eta etxebizitza sozialaren eta babestuaren aldeko jarrera erakutsiko dute. Horrez gain, deialdia babesteko, Udalaren hainbat jokaera salatzen ditu koalizioak, tartean, La Caixako etxebizitzak eta Gelmako kasua aipatuz eta "bidegabekeria soziala" direla esanez.



GOIENKARIA

# Herri eskolakoak, patin gainean ikasi guran

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak ikasle eta gurasoendako patin ikastaroa antolatu du. Hain zuzen ere, Arrasate Herri Eskolaren Erguin eta Bedoñabe (argazkian) eraikinetan egin dute ikastaroa. Eta horren ondo ibili dira eta horren arrakasta handia izan du, ezen datozen urteotan berriro antolatzea erabaki dutela. Eta antolatzaileek, guraso elkarteak, dagoeneko egin du gonbita hurrengo ikastaroan gura duenak parte hartzeko.



LARRAITZ ZEBERIO

# Ikasleak ingurumenaz kezkatuta

Arrasateko Institutuko, Arizmendi Ikastolako gune guztietako eta Mesedeetako Andra Mari ikastetxeko 40 bat ikasle udal ordezkariekin izan ziren eguenean. Agenda21 dela-eta, 6-16 urte bitarteko 1.470 ikaslek aurten jardun dute ura, zaborra eta energiarekin lotutako gaiak lantzen. Ikusitakoaren ondorioak aurkeztu zizkieten udal ordezkariei.



**EGUNEROKOA** Ikastetxe eta lantegietako sarrera eta irteera orduak eguneroko zerbitzuak izaten dira. GOIENKARIA

**UDALTZAINGOA** > 2006KO TXOSTENA AURKEZTU DUTE

# Udaltzainek 3.235 isun jarri zituzten iaz herrian

Debekatuta dagoen tokian aparkatzeagatik izan ziren gehienak; isun asko Ibargarain jarri zituzten

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Bergarako udaltzainek 3.235 isun jarri zituzten joan den urtean, 2005ean baino %52,9 gehiago. 2006. urteko txostena aurkeztu dute udaltzainek, eta horixe da jaso duten datuetako bat.

Txostenak jasotzen duenez, bi arrazoi nagusiengatik gertatu da igoera hori: azken urteetako obra luzeak bukatu zituztela, eta lehen baino udaltzain gehiago egotea. Kaleen arabera, Ibargarain eta Irizarren jarri zituzten isun gehienak.

Isunen arrazoi nagusia gaizki aparkatzea izan zen. Horiek 77.630 euro suposatzen dute; 2006ko 31n %61,55 zeuden ordainduta, eta %4,54, baliogabetuta.

**BESTE DATU BATZUK**
Isunez gain, udaltzaingoak beste datu batzuk ere eman ditu, adibidez: bertan behera utzitako 22 ibilgailu topatu zituen; 345 obra baimen eman; hiru zarata neurketa egin; eta galdutako 96 gauza erregistratu. 2006an, 14 udaltzain zeuden, eta 16 orduko zerbitzua eman zuten egunero.




JOSETXO ARANTZABAL

## Zabalotegiko errepidearen aurka egin dute

Bolu eta Zabalotegiko bizilagunek manifestazioa egin zuten zapatuan, euren auzoak zeharkatuko dituen errepide berriaren aurka daudela esateko. Auzotarren iritziz, errepide hori ez da beharrezkoa, ez lukeelako zirkulazio arazoa konponduko; gainera, auzo bietako bizi kalitatea apurtuko luke, euren esanetan. *Zabalotegiko errepideari ez* zioen pankartaren atzetik irten ziren herritarrak protesta egitera. Zabalotegi auzotik abiatu ziren, eta herriko kaleak zeharkatu zituzten.

**PAZKOAK** > EGITARAUA

# Jaietako egitarauaren 6.000 ale banatuko dituzte

Kartel lehiaketako onena Irene Abad Pinedak egindakoa izan da; 600 euro irabazi ditu

**O.E.** > BERGARA
Erabaki dute aurtengo Mendekoste jaietako egitarauak zein irudi izango duen: Irene Abad Pinedaren marrazkia aukeratu dute horretarako. Irudia aukeratzeko, kartel lehiaketa antolatu zuen Udal Kultura sailak, eta Irene Abaden marrazkiak irabazi du lehiaketa hori. Guztira, 29 kartel aurkeztu zituzten lehiaketara.

**6.000 EGITARAU**
Orain, kultura etxean dago ikusgai kartel irabazlea, eta laster etxeetan banatuko dituzten jaien egitarauaren azalean ikusiko dugu. Egitarauaren 6.000 ale aterako ditu Udal Kultura sailak, eta herriko etxeetan banatuko dituzte guztiak. Maiatzaren 14ko astean hasiko dira banaketa egiten et,a aste horretako domekarako, maiatzaren 20rako, alegia, Bergarako kale eta auzoetako etxe guztietan izango dute Mendekoste jaietako egitaraua. Jaiak hilaren 25etik 29ra izango dira.

Bestalde, jaietan txosna jarri nahi dutenek horretarako eskaera egin behar dute udaletxean. Maiatzaren 10a, 12:00etan, da eskaera egiteko azken eguna. Eskaera orriak eta baldintza pleguak udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke.




**IRABAZLEA** Hauxe da aurtengo Pazkoetako kartela. O.E.

> TAILERRAK

### Gazteendako hankapalo eta antzerki tailerrak izango dira

Udaleko Kultura sailak gazteendako bi tailer antolatu ditu: hankapaloetan ibiltzen ikasteko tailerra eta antzerki tailerra, hain zuzen ere.

Hankapaloen gainean ibiltzeko tailerra 11 eta 17 urte bitarteko gazteendako da. Maiatzeko zapatuetan egingo dute, 16:00etatik 19:00etara. 15 pertsona hartuko dituzte, gehienez. Antzerki tailerra, berriz, maiatzeko martitzenetan egingo dute: 8an, 15ean eta 29an. 18:00etatik 20:00etara izango da tailerra, eta adierazpena, komunikazioa eta umorea landuko dituzte, besteak beste. Tailer bat zein bestea egin nahi duenak kultura etxean eman behar du izena, lehenbailehen.

> ODOL-ATERATZEA

### Eguaztenean da maiatzeko lehen odol-ateratzea

Etzi, eguaztena, da maiatzeko lehen odol-ateratzea. Orain arte beti egin duten tokian egingo dute orain ere, Seminarioko eraikinean, Telefonicako aldapatik sartuta, alegia.

Urte hasieran jakinarazi zien odol emaileen elkarteak bazkideei lokal hori utzi egin behar zutela, eta berria zein izango den abisatuko zietela. Oraindik, ordea, ez dute lokal berririk. Udalarekin harremanetan daude elkarteko ordezkariak, eta Udalak berak aukera batzuk ere aztertu ditu, baina oraindik ez dute toki aproposik aurkitu. Elkarteko ordezkariek erdigunean dagoen toki bat nahi dute, eta orain artekoa besteko handia, ahal dela.

**HAUTESKUNDEAK 07** > EAJ-REN AURKEZPENA

# EAJ "ilusioarekin" aurkezten da legealdira

## EAJk legealdi berrirako dituen konpromisoak jakinarazi zituen egubakoitzeko agerraldian

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Kultura etxeko zinema aretoan egindako agerraldi publikoan, Eusko Alderdi Jeltzalearen alkategai Lurdes Idoiagarekin batera, aldun nagusi izateko hautagaiak, Markel Olanok, eta GBBko buruak, Joseba Egibarrek parte hartu zuten.

Agerraldian, Eusko Alderdi Jeltzaleak,maiatzaren 27ko udal hauteskundeak irabaziz gero, dituen asmoak eta hartzen dituen konpromisoak azaldu zituen, agerraldian bildutako alderdi-kideen aurrean.

**KONPROMISOAK**

Sei atal nagusitan biltzen ditu EAJk legealdi berrirako dituen helburuak.

Udalaren kudeaketa eraginkorra egite aldera, zerbitzuen hobekuntza egiteko "konpromisoa" hartu dute. Halaber, giza politikaren alorrean, tutoretzapeko apartamentuak, eta tratu txarren eta sexu-indarkeriaren arretarako protokoloa aipatu zituzten, besteak beste.

Hirigintza etagarapen iraunkorrean, San Lorentzo eta Errekalde auzoak berritzeko, Azkoagain zelaia konpontzeko eta Kirolgune berria egiteko konpromisoak hartu zituen EAJk.

**KULTURA ETA GAZTEAK**

Zubillagako hiltegiaren zerbitzuaren alde lan egiteko asmoa ere azaldu zuten. Kulturaren, hezkuntzaren, gazteriaren eta euskararen arloan, ludoteka zerbitzua martxan jartzeko asmoa, eta, herriko talde desberdinen ekimenetik abiatuz, kultura jarduera sustatzeko asmoa aldarrikatu zuten.

"Guk konpromisoak hartzen ditugu, ez dira ideia edo plan bati buruzko teorizazio hutsak, konpromiso zehatzak dira", esan zuen Lurdes Idoiagak.




**AGERRALDIA** Argazkian, EAJren Oñatiko zerrendako kideak, Markel Olanorekin eta Joseba Egibarrekin. JOSETXO ARANTZABAL



**IRTEERA** Jentilen pasealekua ezagutu zuten egubakoitzean. GOIENKARIA

**JARDUNALDIAK** > ELKAR HEZI IKASTETXEA

# Askotariko ekitaldiak, Elkar Hezi ikastetxearen eskutik

## Hitzaldiak eta beldurrezko zinema zikloa dira, besteak beste, datozen egunetarako iragartzen direnak

**M.B** > OÑATI

Elkar Hezi ikastetxeak gertu ditu ikasturte amaiera bitarteko ekitaldiak: hitzaldiak, beldurrezko zinema zikloa, antzerkia eta afari-merienda iragartzen dira, besteak beste.

Edozelan ere, gertatu duten egitarau zabal horretako lehen ekitaldia egubakoitzean egin zuten. Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek irteera egin zuten, Natur Eskolako kideen laguntzarekin: jentilen pasealekua ezagutu zuten, eta, Bellotza baserritik aurrera eginez, Gazteluaitzera igo ziren. Ibilbidean zehar, Natur Eskolako kideen azalpenak entzun zituzten.

**EGITARAUA**

Programan jaso diren hitzaldiak 0-6 urte arteko seme alabak dituzten gurasoendako antolatu dira.

Hurrengo hitzaldia etzi, eguaztena, izango da. Umearen elikadurari buruzko hitzaldia Jose Amiama psikologo eta pedagogoak egingo du. Aipatu hitzaldia lehen hezkuntzako liburutegian izango da, 18:30ean hasita.

Zapaturako, aldiz, beldurrezko zinema iragartzen dute. Donostiako beldurrezko zinema zikloaren zuzendari Jose Luis Rebordinosen laguntza izan dute ekitaldia antolatzeko. Momentuz, "sekretuan" gorde dute pelikula zerrenda.

Maiatzaren 26an, hiru eta zazpi urte arteko umeendako antzerki saioa antolatu dute, *Alaia* izenekoa. Aldiz, 11 eta 13 urte artekoendako, gozogintza ikastaroa antolatu dute.

Azkenik, ikasturtea amaitzeko, afari-merienda egingo dute ekainaren 15ean.

# ETEOko ikasleei diplomak banatu zizkieten

Enpresa Zientzien fakultateko 166 ikaslek diplomak jaso zituzten, zapatuan, Santa Ana antzokian egindako ekitaldi baten.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Kudeaketa Informatikako Ingeniaritza Teknikoan eta Zuzendaritzako Idazkaritzan lizentziadunek jaso zituzten diplomak.

Halaber, beste 50 ikaslek graduondoko titulua eskuratu zuten ekitaldi berean.

Argazkirako bildu genituen, tituluak jaso ondoren.



JOSETXO ARANTZABAL

**ESKORIATZA** > BERTSOLARITZA

# Bertsoak itzultzearen inguruko saio esperimentala HUHEZIn

Euskara ez dakitenek bertsoak uler eta goza ditzaten bideak aztertzen dihardute zenbait bertsolarik, eta HUHEZIn, horiek erakutsiko dituzte



**XABI PAYA** Paya itzultzaile eta bertsolariak gidatuko du saioa. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Bihar, martitzena, *Bertsoak itzul daitezke?* izeneko saio esperimentala egingo dute HUHEZI fakultateko areto nagusian, 15:00etan. Saio hori Xabi Paya itzultzaile eta bertsolariak gidatuko du, eta Andoni Egaña eta Onintza Enbeita bertso-itzulpen jolasetan arituko dira.

Payak azaleratu gura duen kezka bertsoak itzul daitezkeenaren gainekoa da. “Bertsolaritza euskaldunok baino ezin goza dezakegun adierazpide moderno tradizionala da; eta hizkuntzaren mugak mezurik gabeko kantu bihurtzen du bat-bateko bertsoa entzule erdaldunen belarrietan”.

**ADIBIDEAK EMANGO DITUZTE**

Lehenik eta behin, Payak bertsolaritzaren eta itzulpenaren gaineko hainbat azalpen emango ditu. Horren ostean, Egaña eta Enbeita bertsotan arituko dira, eta Payak bertso horien itzulpenak egingo ditu.

Payaren ustetan, ezinezkoa da bertsoak ondo itzultzea. Bere esanetan, itzulpenak egiterakoan, hiru bide har daitezke: parafrasia, jatorrizkoaren bertsio librea; lexikoa, hitz eta hitz-kateen oinarrizko esanahia; eta literala, zorroztasun handienarekin jatorrizkoaren esanahi kontestuala eskaintzen duen itzulpena. Azken hori da itzulpen benetakoa. Baina, hala ere, Payaren esanetan, ezin da itzulpen osorik egin. Horretan, hainbat elementuk eragiten dute: hitz batzuk itzultzeko ezintasuna, kultura erreferentzia desberdinak, eta beste faktore batzuk.




**AURKEZPENA** Zerrendako lehenengo lau hautagaiak. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKORIATZA** > HAUTESKUNDEAK 07

## EB-Berdeak-Aralar taldeak programa aurkeztu du

Federalista eta independentistak batuta, giza arloan lan handia egingo dutela diote

**I.B.**> ESKORIATZA

Eskoriatzako Ezker Batua-Berdeak-Aralar taldeak zerrendak eta programa aurkeztu zituen egubakoitzean Udaleko osoko bilkuran egin zuten ekitaldian.

Juan Luis Merino da zerrendaburua, eta hurrengo hirurak honako hauek dira, hurrenez hurren: Imanol Zubizarreta, Luis Varo eta Blanca Merchan, hain zuzen ere.

**PARTE-HARTZEA INDARTU**

Zerrendaburu Juan Luis Merinok azaldu zuen bi helburu nagusi dituztela: Udaleko ateak herritarrei zabaldu eta parte-hartzea bultzatzea; eta euskararen erabilera eta normalizazioa indartzeko ahalegin handiak egitea.

Bestalde, zerrendaburuak azpimarratu zuen federalisten eta independentisten arteko hitzarmenak giza arloan lan handia egitea ahalbideratuko duela.

Horrez gain, ingurumena ere helburu garrantzitsuenetako bat dela azaldu zuen: “Agenda21 bultzatu gura dugu, udalerrian eta eskoletan; eta kontsumo arduratsua egiteko kanpainak egingo ditugu”.

Etxebizitzak errazago eskuratzeko hainbat bide zabaldu gura dituzte, eta bakarrik bizi diren pertsona nagusiei laguntasuna eskaini gura diete. Gazteei dagokionez, berriz, ludoteka eta gaztelekua indartzeaz gain, gaztetxe bat sortzeko interesatuekin batzartu gura dute.

**ARETXABALETA** > UME ETA GAZTEEN AISIALDIA

## Ekitaldi ugari maiatzean, ludotekan eta gaztelekuan

Atxagazte gaztelekuan eta Algara ludotekan, ekintza ugari antolatu dituzte ume eta gaztetxoendako

**I.B.** > ARETXABALETA

Udaleko Gazte sailak eta Atxagazte gaztelekuko eta Algara ludotekako arduradunek maiatzerako hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Herenegun, zapatua, galdera jolasaren sari banaketa eta jaia egin zituzten, gaztelekuan. Horrez gain, hilaren 12an, malabareak egiteko eta monozikloetan ibiltzeko aukera egongo da. Hilaren 19an, kanpo ekintzak egingo dituztela iragarri dute; eta gaztelekuko hilabeteko ekintzak bukatzeko, maiatzaren 26an, zapatua, irteera egingo dute Eskoriatzako taldearekin batera.

**LUDOTEKAN ERE, EKINTZAK**

Algara ludotekan ere, ez da asteburuetan aspertzeko aukerarik izango. Hilaren 12an, eskulanak egingo dituzte; eta 19rako, Euskararen Eguna ospatzeko egitaraua prestatzen dihardute. Hilabetea bukatzeko, marrazki lehiaketa egingo dute maiatzaren 26an.

**7 ETA 12 URTE BITARTEKOAK**

Horrez gain, 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako, ekintza bereziak antolatu dituzte: hilaren 18an, munduko jolasak egingo dituzte, Kurtzebarri eskolako kan-txan; eta hilaren 25ean, berriz, altxorraren bila jolasean ibiliko dira herrian.

**ARETXABALETA** > HAUTESKUNDEAK 07



JOSETXO ARANTZABAL

## EAJk bere hautagaiak aurkeztu zituen

Hilaren 27ko udal hauteskundeetara begira, Aretxabaletako Eusko Alderdi Jeltzaleak bere zerrendaburua, Arritxu Oliden, eta hurrengo hautagaiak aurkeztu zituen modu ofizialean joan den egubakoitzean, herrirako dituzten asmoen berri emateko. Batzokian egin zuten ekitaldia, eta Joseba Egibar Gipuzku Buru Batzarreko buruak eta Markel Olano aldun nagusi izateko hautagaiak babestu zituzten Aretxabaletako EAJko hautagaiak.

**ELGETA** > ESPAINIAKO GERRAREN INGURUKO ERAKUSKETA

# Antolatzaileak eta publikoa, gustura erakusketarekin

## Zabalik egon den hiru asteetan, 4.000 lagunek ikusi dute 1936ko Gerraren inguruko erakusketa

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Jende mordoa erakarri du Elgetako Espaloian Gerra Zibilaren inguruan egindako erakusketak. "Oso pozik gaude", adierazi du Intxorta Kultura Elkarteko presidente Jesus Gutierrezek. "Publikoa izan dugu, komunikabideetan oihartzun handia lortu dugu eta etorkizunean gauza berriak egiteko bideak zabaldu ditugu".

Gutierrezen esanetan, erakusketaren arrakasta aurkeztutako materialean egon da: "Gure eskualdearen inguruan antolatu dugu erakusketa, eta hori guztiz berria izan da publikoarendako".

**ESPALOIAN ERE, GUSTURA**

Espaloia Kafe Antzokian ere, erakusketa arrakastatsua izan dela uste dute. "Jende asko etorri da; eta gogoz etorri da, gainera, erakusketa ikustera", adierazi du Espaloia kultura taldeko Iban Arantzabalek. "Denboraz eta galdezka etorri da jendea. Lehendik animatuta bageunden erakusketa horrekin, orain, gehiago, gai horrekin lotutako edozer gauza egiteko". Arantzabalek uste du material asko oraindik ere ikusi barik gelditu dela, eta polita litzatekeela, erakusketa aberasterakoan, berriz egitea.




**ERAKUSKETA** Ikusmin handia piztu du Elgetako erakusketak zabalik egon den hiru asteotan. JOSETXO ARANTZABAL

**ANTZUOLA**

# Mahaiak osatzeko zozketa egin dute

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Aurreko astelehenean egin zuten hauteskundeetarako mahaiak osatzeko zozketa. Bi mahai egongo dira. A mahaian, Iñaki Gabilondo izango da presidentea, eta Alaitz Igartzabal, haren ordezkoa; lehenengo bokala, Julian Garitano, eta Concepcion Alcantara, ordezkoa; bigarren bokala Encarnacion Kortabarria izango da, eta Juan Jose Azkarate, ordezkoa. B mahaiko presidentea Koldobika Lizarralde izango da, eta Garikoitz Lete ordezkoa; lehenengo bokala, Vanesa Perez, eta haren ordezkoa, Maider Martin; bigarren bokala Josu Laskurain, eta Jose Mari Lezeta, ordezkoa.

**GATZAGA**

# Oniritzia jasotakoan izango dute gasa herrian

**MIRARI ALTUBE** > GATZAGA

Gatzagako Udalak joan zen udazkenerako izan gura zuen gasa herrian, baina kontua atzeratu egin da, eta oraindik ez daukate gasik. Lan guztiak bukatuta daude, eta oniritziak behar dituzte orain. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dute lehenengo proiektua, eta gero, probak egiten hasiko dira. Probek emaitza onak ematen dituztela ikusitakoan, Industria sailak ematen duen oniritzia eskatuko dute.

Lehenengo fasean dauden herriko etxeetara iritsiko da orduan gasa. Bigarren faseko lanak aurten hasi gura zituzten, proiektua eginda dute-eta, baina, oraingoz, ez da hala izango.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21

Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

**ARAMAIO** > INGURUMENA

# Zenbait baso partzela enkantera, pinuak botatzeko

## Ganboralde, Durakogain eta San Adrian birlandatzeko lehiaketa deituko dute



**DANBORRALDE** Birlandaketa hasi aurretik, pinuak bota behar dituzte. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Udalak enkantera aterako ditu Danborralde mendiko hiru partzelatako zatiak. Pinuak bota beharko dira partzela horietan. Hain zuzen ere, maiatzean egingo duten osoko bilkuran, legegintzaldiko azkenekoan, esleitu nahi ditu Udalak lan horiek. Aurrekontua ere zehaztu dute: 167.789,82 euro.

**BIRLANDAKETA**

Behin Danborralddeko pinuok aterata, Udalak beste lan bat abiaraziko du: Durakogain, San Adrian eta Danborralde mendietan, zuhaitzak birlandatuko dituzte. Lehiaketa deituko du lan horiek egiteko. Are gehiago, lehiaketa horretarako plegua onartu dute dagoeneko. Baina lan hori abaiarazi baino lehen, derrigorrezkoa dute Ganboraldeko pinuak botatzea.

Kontuak kontu, birlandaketa egiteko aurrekontua zehaztuta dute: 134.976,49 euro.

Udalaren asmoa da birlandaketa egiteko lanak irailean adjudikatzea, berehala landatzen hasteko, hori da-eta zuhaitzak landatzeko sasoirik onena.

Proiektu hori Basoekin enpresak egin du eta, gero, enpresa berak egingo du lanen jarraipena.

**PANEL INFORMATIBOAK**

Hemengo espezieak landu nahi ditu Udalak Durakogain, San Adrian eta Ganboralde mendietan, eta gero, zuhaitz horien gaineko argibideekin, panel informatiboak ipini nahi ditu, baita plaka bat ere.




**> FUTBOLA**
Mondrak 2-1 irabazi zion Ondarroako Aurrerari **> 18**





**> FUTBOLA**
Antzuolak 5-0 irabazi dio Elgetari ibarreko taldeen arteko derbia **> 19**





**> ESKUBALOIA**
Arrasateko 1. Territorialeko taldeak irabazi egin du **> 19**





**> SASKIBALOIA**
Mugarri Alkesak 96-70 irabazi du azkenaurreko lehia ligan **> 20**


**BERGARA** > KILOMETROEN ALDEKO ASTE BUKAERA

# Giro ezin hobean egin dute mendi asteburua Bergaran

**IV. XIBA JAIALDIA**
Bergarako pilotalekuan ospatu zen herrien arteko euskal joko jaialdia

**IÑURRATEGI**
'Gure Himalaya' ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen Alberto Iñurrategi mendizaleak

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Kilometroen aldeko mendi asteburua egin berri dute Bergaran. Ekitaldien artean, IV. Euskal Herrien arteko Euskal Joko jaialdia, Alberto Iñurrategiren *Gure Himalaya* ikus-entzunezkoa eta Urkulura mendiko bizikleta itzulia egin dituzte.

**ZIZURKIL, NAGUSI**
Zapatu arratsaldean, Bergarako pilotalekuan, giro berezia izan zen. Xiba edo IV. Euskal Herrien arteko Euskal Joko jaialdia ospatu zuten; pilotalekuan, Gipuzkoako zortzi herriko taldeak elkartu ziren euskal jokoetan nor baino nor aritzeko.

Jokoak arratsaldeko 5etan hasi ziren; Bergarako musika eskolako trikitilariekin, kalejira txiki bat egin zuten, talde guztiak aurkezteko. Banan-banan, Asteasuko, Egiako, Azpeitiko, Hernaniko, Zizurkilgo, Idiazabalgo, Beasaingo eta Zarauzko taldeak pilotalekuan sartu ziren. Talde guztiek zapi bana zuten, bakoitzak bere herriko kolorearekin. Beasaindarrek, gainera, jarraitzaile koadrila polita ekarri zuten, bonbo eta guzti.

Aitor Esnaolak, Euskal Jokoen antolatzaileak, hauxe adierazi zuen ekitaldi hasieran: “Helburua ondo pasatzea da, eta, bide batez, galtzear dauden hainbat joko berreskuratzea”. Aldi berean, halako ekitaldiek “herrien artean harremanak” egiteko ere balio duela gaineratu zigun Esnaolak.

Hamalau joko egin zituzten parte-hartzaileek: soka-tira, harri jasotzea, arrauna, lokotxa, txingak, musa, euskal dantza eta beste hainbat. Joko guztietako emaitzak batuta, Zizurkil izan zen nagusi zapatuan Bergaran. Horiek Zuberoan egingo den azken jaialdian hartuko dute parte. Izan ere, lehenengo, herrialde bakoitzak bere txapelketa antolatzen du eta, gero, lehia horietako irabazleak Euskal Herrien arteko Euskal Joko jaialdi nagusian egongo dira.

Esnaolak adierazi zigun bezala, joko hauetan garrantzitsuena giroa izaten da. Bergaran, adibidez, txapelketa hasi aurretik, parte hartu behar zuten lagun guztiak beroketa ariketak egiten ibili ziren pilotaleku kanpoan. Giro ona eta algarak, behintzat, ez ziren falta izan.

**IÑURRATEGI, EGUBAKOITZEAN**
Baina, aste bukaeran, beste hainbat ekitaldi ere izan ziren. Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarraren ikus-entzunezkoaren aurkezpenak jende asko batu zuen egubakoitzean UNEDeko areto nagusian. *Nire Himalaya* dokumentalaren aurkezpena aurreikusita egon arren, azkenean, *Gure Himalaya* ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen Iñurrategik. Han, gaur egun, mendizaletasunak bizi duen egoera kritikatzen du aretxabaletarrak; zortzi milako mendiak egiteko dagoen zoramena, azken finean. Gainera, teknologia berrien laguntzarekin, "edonor" joan daitekeela Himalayara ere esan zuen aretxabaletarrak Bergarako UNEDeko aretoan.

Aretoa lepo bete zen: 110 lagun elkartu ziren eta, ikus-entzunezkoaren amaieran, Iñurrategiri galderak egiteko aukera izan zuten han zeudenek.

**URKULURI BIRA**
Kilometroen aldeko aste bukaera amaitzeko, atzo, Urkuluri bira mendiko bizikletan egin zuten. 25 eta 35 kilometrotako bide bana egin zuten: bide erraza eta zaila. Gero, Urkulun, hamaiketakoa egin zuten, indarrak berreskuratzeko asmoarekin.









**ASTEBURUA** Alberto Iñurrategi, UNEDeko aretoan; euskal jokoak; eta bizikleta birako parte-hartzaileak. JOSETXO ARANTZABAL



## SENIOR MAILA

**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Aitor Padilla, Isei Barbero, Iñigo Ansuategi, Xabier Gardoki, Patxi Gorosabel, Jon Lizaur, Andoni Iñurritegi eta Unai Aramburu..
**Beheko ilaran, ezkerretik hasita:** Unai Lazkano, Igor Eraña, Peio Merchan, Iban Agirreurreta, Asier Bidaburu, Iban Rodriguez, Asier Galiano eta Ramon Lopez.

Servimasa

Anboto
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

BASATI TABERNA

# sate Errugbi Taldea 06-07




SENIOR MAILA, KOPA TXAPELKETA



GAZTE MAILA



INFANTIL MAILA



MIKEL LASA, S.A.

Kanpazar obate
harrobiak

**PREFERENTE MAILA** > 31. JARDUNALDIA

# Muruak bi gol egin zituen, eta Ander atezainak, geldiketa onak

MONDRA

**2-1**

AURRERA

**Mondra** > Ander, Andoni (Iker, 66. min.), Aitor, Loiti, Ruben, Gotzon (Losada, 86. min.), Josu (Julen, 72. min.), Murua, Ekain (Keixi, 80. min.) eta Lopez.

**Aurrera** > Iruretagoiena, Leon, Bengoetxea, Gabela (Igor, 88. min.), Akarregi, Arrate, Ugalde, Arrotxa (Duarte, 46. min.), Badiola, Markel (Vazquez, 84. min.) eta Villalba (Lena, 56. min.).

**Epailea** > Zubiaurre jauna.



**ILLART ETXEBARRIA** Mondrako jokalaria, baloiari jotzeko gertu, zapatuko partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Preferente mailako 31. jardunaldiko partidua jokatu zuten, zapatuan, Mondrak eta Aurrerak.

Igor Gordobilen taldea, bi goleko errenta izan arren, azken minututan larri ibili zen. Minutu haietan, Ander atezainak geldiketa onak egin zituen; geldiketa haiei esker, eta Muruak lortutako bi golei esker, Mondrak hiru puntuak eskuratu zituen.

Hala, arrasatearrak bosgarren daude sailkapenean, 48 punturekin. Azkeneko hiru jardunaldietan, Zestoaren, Aloñaren eta Zarautzen aurka jokatu beharko dute Arrasatekoek.

**LEHENENGO ZATIA**

Zapatuko partiduko lehen minutuak oso parekatuak izan ziren. Edozelan ere, aukerarik garbienak etxeko taldeak izan zituen. Hala, Jon Muruak eta Josu Zubikaraik aukerak izan zituzten lehen gola egiteko. Bada, berdinketa 28. minutura arte mantendu zen; Muruak, Ekainek sakonean bidalitako baloia aprobetxatu zuen, lehenengo gola egiteko.

Lehenengo zatian, Aurrerak izandako aukera garbiena Leon jokalariak *txilena* bidez egindako jaurtiketa izan zen.

**BIGARREN ZATIA**

Atsedenaren ondoren, Aurrerak hobeto jokatu zuen; partidua hobeto menderatu zuten. Bada, Mondra izan zen bigarren gola egin zuena: Muruak lortu zuen, 69. minutuan. Lau minutu geroago, 73. minutuan, Badiolak egin zuen Aurrera taldearen gola.

Handik amaierara, Aurrerak aukera gehiago izan zituen, baina Ander atezainak egindako geldiketei esker, garaipena eta puntuak Arrasaten geratu ziren.

**BIGARREN ERREGIONALA** > IGOERA FASEA

## Antzuolak bere esku du igoera txartela lortzea

ANTZUOLA

**5-0**

ELGETA

**A.G.** > ANTZUOLA

Zapatuan, Elgetaren aurka 5-0 irabazi ondoren, Antzuolak gero eta gertuago dauka datorren denboraldian 1. Erregionalean jokatzea.

**LEHENENGO ZATIAN KONTROL GABE**

Zapatukoa ibarreko taldeen arteko derbia izan zen. Antzuolako Estala futbol zelaian, Antzuolak eta Elgetak neurtu zituzten indarrak. Lehenengo zatia, jokoari dagokionez, ez zen ona izan. Biak ala biak ez ziren izan zelai erdiaren jabe egiteko gai.

Aldea, baina, gol aukeretan egon zen. Etxeko taldeak izandako aukera guztiak aprobetxatu zituen, eta atsedenera 3-0 aurretik iritsi zen. Bigarren zatian, gauzak ezberdinak izan ziren. Markagailua kontra zutela, Elgetako jokalariak behera etorri ziren; hala, Antzuolak beste bi gol egitea lortu zuen. Zapatuko golegileak Iñaki Agirre (2), Jon Gurutz Godoi, Auritz Guridi eta Iban Unanue izan ziren. Datorren astean, sailkapenean atzetik datorren Intxurre taldearekin neurtuko da.



**GOLA** Irudian, Antzuolako jokalaria, gola ospatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak eta sailkapenak**

**PREFERENTE MAILA**

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **67** | 31 |
| 2. **Hernani** | **58** | 31 |
| 3. **Zestoa** | **52** | 31 |
| 4. **Ordizia** | **49** | 31 |
| 5. **Mondra** | **48** | 31 |
| 6. **Berio** | **46** | 31 |
| 7. **UDA** | **46** | 31 |
| 8. **Anaitasuna** | **44** | 31 |
| 9. **Berio** | **43** | 31 |
| 10. **Touring** | **40** | 31 |
| 11. **Aloña Mendi** | **39** | 31 |
| 12. **Idiazabal** | **35** | 31 |
| 13. **Aurrera** | **35** | 31 |
| 14. **Hondarribia** | **32** | 31 |
| 15. **Martutene** | **30** | 31 |
| 16. **Pasaia** | **29** | 31 |
| 17. **Mutriku** | **28** | 31 |
| 18. **Urola** | **21** | 31 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Zarautz-Aloña Mendi ´ | 3-0 |
| Trintxerpe-Zestoa | 0-1 |
| Mondra-Aurrera | 2-1 |
| Idiazabal-Ordizia | 1-0 |
| Anaitasuna-Hernani | 0-1 |
| Berio-Hondarribia | 3-0 |
| Touring-Pasaia | 1-2 |
| Mutriku-Martutene | 3-0 |
| UDA-Urola | 3-2 |

**Hurrengoak**

Zarautz-UDAi
Aloña Mendi-Trintxerpe
Zestoa-Mondra
Aurrera-Idiazabal
Ordizia-Berio
Hondarribia-Anaitasuna
Hernani-Touring
Pasaia-Mutriku-
Martutene-Urola

**BESTELAKOAK**

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Lagun Onak-Bergara | 2-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Lazkao-BTLS | 3-0 |
| Antzuola-Elgeta | 5-0 |

**BIGARREN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Mondra | atsedena |
| UDA-Urki | 4-3 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| BTLS-Vasconia | 1-1 |
| Hernani-Mondra | 1-1 |

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi | atsedena |
| Arizmendi UDA-Anaitasuna | 2-0 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Mondra | 5-5 |
| Martutene-UDA | 2-5 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Aurrera-Bergara | 0-1 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Beasain-UDA B Arizmendi | 2-3 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Arrasate | 3-3 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| UDA Arizmendi-Lengokoak | 1-1 |
| Bergara-Touring | 3-1 |

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Aloña Mendi | 2-1 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Ilintxa-UDA B Arizmendi | 2-0 |
| Bergara B | atsedena |

**KADETE NESKAK, TXAPELDUNEN FASEA**

| | |
|---|---|
| Lagun Onak-Aloña Mendi B | 9-0 |
| ArizmendiUDA B-Touring | 9-1 |

**LEHENENGO TERRITORIALA** > KOPA TXAPELKETA

# Zapatuan, etxeko taldea aurkaria baino lehiakorragoa izan zen Musakolan

Etxeko taldean atezaina bikain aritu zen; gol aukera asko gelditu zituen arrasatearrak

Atzoko emaitzarekin, Arrasate sailkapeneko hirugarrena da, lau punturekin



**ATZERATUTA** Zapatuko lehia hirugarren jardunaldian atzeratutako partidua izan zen. JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE
**25-21**
HEGIALDE AUTO

**Arrasate** > Sarrao (1), Herrero (3), Etxeberria, Arrese-Igor (3), Elortza, Laubide (8), Penas (2), Rodriguez (7), Urra (1), Letona eta Aranburuzabala.

**Hegialde Auto** > Perez (1), Garcia (6), Makibar (3), Telleria (6), Bereziartua, Belver, Sedeno (4), Iñurrategi (1) eta Fernandez.

**Golak** > 2-1, 4-2, 8-4, 10-5, 12-10. 13-10. Atsedena. 17-12, 18-16, 21-17, 23-17, 23-18, 25-21.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Arrasateko 1. Territorialeko eskubaloi taldeak eta Hegialde Autok hirugarren jardunaldian atzeratutako lehia jokatu zuten zapatuan Musakolan. Etxekoak nagusi izan ziren markagailuan, eta azkeneko emaitza 25-21 izan zen.

**ATEZAINA, BIKAIN**

Etxeko taldea hasieratik izan zen nagusi markagailuan. Lehenengo minututik jarri ziren aurretik; minutuak pasa ahala, markagailuko errenta handitu besterik ez zuten egin arrasatearrek. Hala, 20. minuturako bost goleko aldea ateratzen zion dagoeneko etxeko taldeak aurkariari.

Etxekoen artean, Arrese-Igor ondo aritu zen pibot lanetan. Gol politak lortu zituen Arrasateko jokalariak, eta eskumako hegaleko barruratzeetan ere ondo aritu ziren etxekoak. Jaurtiketa asko eta eragingarriak egin zituzten. Baina, zapatuan, onena atezaina izan zen. Hari esker, Hegialde Auto taldearen gol aukera garbiak ezerezean geratu ziren. Bikain aritu zen Aranburuzabala.

**MARKAGAILUAN, BI GOLEKO ALDEA**

Atsedenera, etxeko taldea 13-10 aurretik iritsi zen. Bigarrenean, hasierako minutuetan batez ere, etxekoek tartea zabaldu zuten markagailuan. Baina 10. minuturako, Hegialde Autok bi golera hurbiltzea lortu zuen. Hura izan zen etxekoen momentu txarrena; jokalariek behera egin zuten. Hala ere, etxekoek ez zuten amore eman eta, azkenerako, 25-21 nagusitu ziren. Arrasatekoak kopa txapelketako hirugarren postuan daude, lau punturekin.

**IGOERA FASEA**

## Bergarak azkeneko minutuetan galdu zuen

**A.G.** > BERGARA

Bergarak 31-28 galdu zuen igoera faseko 6. jardunaldia zapatuan Urdulizen.

Lehia nahiko parekatua izan zen; bi taldeak lehiatsu aritu ziren eta azkeneko bost minutuetara arte ez zen ezer erabaki Urdulizeko kantxan.

Azkeneko bost minutuetan, baina, mahoneroek behera egin zuten eta momentu hura aprobetxatu zuten etxekoek markagailuan aurretik jarri eta bi puntuak irabazteko. Zapatuko emaitzarekin, Bergarak sailkapenean 6 punturekin jarraitzen du; Urdulizek, berriz, sailkapeneko lehenengoak, 9 ditu.




JOSETXO ARANTZABAL

## Kopa txapelketako lehen partidua galdu zuen Aloñak Elgoibarren aurka

Egubakoitzean hasi zuten Aloñako senior mailako neskek Kopa txapelketa Elgoibarren aurka; eta ezin izan zuten garaipena eskuratu, 23-33 galdu zuten-eta.

"Guk lan ona egin dugu, partiduko erritmoa guk jarri dugu, baina Elgoibarrek erakutsi du gu baino gehiago dela. Kontraerasoan, ondo jokatu dute, eta gu, bigarren zatian, behera etorri gara", adierazi zigun taldeko entrenatzaileak, Maitane Ruizek.

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **GIPUZKOAKO KOPA, LEHEN ETA BIGARREN MAILA NAZIONALA** | |
| Arrate-Ford Mugarri | 30-39 |
| **GIPUZKOAKO KOPA, NESKAK** | |
| Verkol Aloña-Elgoibar | 23-33 |
| **EUSKADIKO TXAPELKETARAKO IGOERA FASEA** | |
| Urduliz-Bergara | 31-28 |
| **LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA** | |
| Arrasate-Hegialde auto | 25-21 |
| **GAZTE MUTILAK, KOPA** | |
| Bergara-Arrate | 24-32 |
| **GAZTE NESKAK, KOPA** | |
| Verkol Aloña-Zarautz | atzeratuta |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Egia servi chap-Aloña Mendi | 34-36 |
| Gatz Museoa Jakion-Hondarribia | 19-18 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Verkol Aloña | atsedena |

LEHENENGO MAILA > IGOERA FASEA

# Lehenengo tartean erabaki zuen partidua Mugarri Alkesak

Arrasatearrek 36-19ko partziala egin zuten hasierako laurdenean; hortaz, arazo barik irabazi zuten



JAGOBA GAMARRA Arrasateko jokalaria, jaurtiketa egiteko gertu; zapatuan, 13 puntu egin zituen. JOSETXO ARANTZABAL

MUGARRI ALKESA

**96-70**

VALSAY ARDOI

**Mugarri Alkesa** > Jagoba (13), Imanol (11), Ander (4), Gorka (8), Beñat, Kintana (14), Antxon (5), Alartzia (6), Iker (6), Iñigo (20), Isasa (7) eta Aitor (2).

**Valsay Ardoi** > Hernandez, Etxeberria (19), Jamices, Arbella, Domeno (15), Rivero (2), Diez (4), Irisarri, Errubia (9) eta Castellanos (21).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 36-19. Bigarren laurdena: 59-32. Hirugarren laurdena: 80-53. Laugarren laurdena: 96-70.

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Valsay Ardoi taldeak, amaieran, emaitza zertxobait txukundu zuen arren, Mugarri Alkesak ez zuen arazorik izan nafarren aurkako partidua irabazteko. Izan ere, zapatuan, Iturripen jokatu zen norgehiagokan, etxekoak izan ziren jaun eta jabe.

Hala, garaipen harekin, euren esku dute EBA ligara sailkatzeko txartela ematen duen partidua jokatzea. Ocaso Berriotxoa taldearen aurka irabaziz gero, Aragoiko ligako lehen sailkatuaren aurka jokatuko dute. Lehia hori irabazten duena, datorren denboraldian, EBA ligan lehiatuko da.

**PARTIDU ERREZA**

Igoera fasea bigarren tokian amaitzeko, derrigor irabazi behar zuen Mugarri Alkesak zapatuko partidua. Horregatik, tentsio handiz irten ziren kantxara, baina lehia hasieratik menderatu zuten.

Erasoan lortutako hiruko saskiratzeei –sei egin zituzten lehen tartean–, eta errebotean egindako lanari esker, laurden borobila egin zuten. Tarte hartan, 36-19ko partziala egin zuten.

Hala, norgehiagoka ia erabakita zegoen bigarren tartea hasi orduko. Laurden hartan, abantaila handitzen joan zen, poliki-poliki. Gorka Zurututzaren taldeak, atsedenean, 27 puntuko abantaila zuen (59-32).

Hirugarren tartearen bosgarren minutuan, Mugarri Alkesak 37 puntuko abantaila zuen (74-37).

Handik aurrera, eta partidua amaitu arte, nafarrak abantaila murrizten joan ziren. Gehienez ere, 23 puntura hurbildu ziren; bada, amaieran, errenta 26 puntutan utzi zuen Gorka Zurututzaren taldeak.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Aloñak liderraren aurka galdu zuen (71-53)

Gipuzkoako txapelketako 14. jardunaldiko partidua jokatu zuen Aloñak, Haurtzaro liderraren aurka. Gorka Judezen taldeak galdu egin zuen. Hala, sailkapeneko seigarren tokian dauden oñatiarrak, 20 punturekin.

Txapelketa bera jokatzen du Bergarako Candy taldeak; bada, aste bukaeran, atsedena izan du. Bergararrak, une honetan, hirugarren dira sailkapenean, 24 punturekin. Hortaz, postu horretan bukatuz gero, datorren denboraldian, beste maila batean jokatuko dute. Denboraldia amaitzeko, bi norgehiagoka falta dira.



ESKORIATZA Irudian, Intxaurtxuetan jokatutako partidu bat. ARTXIBOA

IGOERA FASEA ESKORIATZAN > MAIATZAREN 12AN ETA 13AN

# Añorgaren aurka jokatzea egokitu zaio Eskoriatzari

Domekako finaleko irabazleak 2. maila nazionalean jokatuko du datorren urtean

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Donostiako Añorga taldearen aurka jokatuko du zapatuan Eskoriatzak igoera faseko lehenengo lehia. Atzo, Donostian, Cafes Aitona taldearen aurka 47-52 irabazi ondoren, eskoriatzarrek bigarren postuan amaitu dute liga. Hala, zapatu arratsaldean Intxaurtxueta kiroldegian jokatuko diren lehiak ondorengoak izango dira: Internacional-Cafes Aitona eta Añorga-Eskoriatza. Ondoren, domekan, bi partidu horietako irabazleek neurtuko dituzte indarrak final nagusian. Irabazlea bigarren maila nazionalera igoko da.

**LEHIA PAREKATUA ESPERO DA**

Eskoriatzako entrenatzailearen hitzetan, " igoera fasea parekatua izango da. Ligan jokatu ditugun partiduetan, nahiko talde berdintsuak garela argi ikusi da". Gainera, Eskoriatzakoek etxean jokatuko dute: "Zaleen animuek asko lagunduko digute. Gainera, ez da igoera fasea jokatzen dugun lehen aldia, beste inoiz ere ibili izan gara", gaineratu digu Sanchezek.

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Mugarri Alkesa-Valsay Ardoi | 96-70 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Haurtzaro-Aloña Mendi | 71-53 |
| Candy | atsedena |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Cafes Aitona-Eskoriatza | 47-52 |
| Aloña Mendi-Internacional | 25-52 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Graficas Ilba-Mugarri Alkesa | 75-70 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Salletarrak-Kortazar Txirrita | 48-34 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Easo Basoa-Bergara | 50-37 |

**ESKOLA KIROLA** > BERGARA

# Gaztetxoek atletismoa egiteko aukera polita dute Bergaran

**15 GAZTE** Alebin, infantil eta kadete mailako 15 neska-mutiko ari dira Bergarako atletismo taldearekin entrenatzen

**ARRASATEKO ENTRENATZAILEA** Arrasate Atletismo taldearen laguntzarekin entrenatzen dute; Mikel Uribesalgo da entrenatzailea

**BALOIA EZ DEN BESTE ZERBAIT** Atletismo taldearen helburua baloia erabili behar ez den beste kirolak eskualdean ezagutaraztea da

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Atletismoa ezagutu edo atletismoan aritu nahi duen edozein gaztetxori zuzenduta, eskola mailako atletismo taldea sortu dute Bergaran.

**ESKOLA KIROLA**

Oraingoz, alebin, infantil eta kadete mailako 15 neska-mutiko daude Bergarako atletismo taldean. 5. mailatik hasi eta DBH 1. eta DBH 3. mailatako gazteak dira; eskola ezberdinetako haurrak dira.

Gazte horiek eskola kiroleko lizentzia dute, eta federazioak antolatzen dituen lehiaketa edo txapelketetan parte hartzen dute. Oraingoz, Gipuzkoa mailan lehiatzen dira Bergarako gazte hauek.

**TALDEA INDARTU GURAN**

Aurten sortutako taldea da atletismokoa. "Lehen, Bergaran, izan genuen atletismo talde bat, baina hura desagertu egin zen. Orain, berreskuratu egin nahi dugu atletismoa. Sortu berri dugun talde honekin, ea atletismoak bultzada hartzen duen Bergaran!", azaldu digu Aranzadi ikastolako maisua den eta atletismo taldea bultzatzen ari den Damaso Gallastegik.

Gainera, taldearen helburua datorren urteari begira lan egitea da. Poliki-poliki, neska-mutikoek atletismoa ezagutu eta- datorren urtean- talde indartsuagoa edukitzea da helburua.

"Bestalde, atletismoa beste edozein kirol bezain duina dela erakutsi nahi dugu. Ez dago zertan baloiarekin jokatzen diren kirolak bakarrik egin behar; beste kirol batzuk ere badaudela erakutsi nahi diegu gazteei", gaineratu digu Gallastegik.



ARANTZAZU EZKIBEL

**BERGARA.** Goitik hasita, ezkerretik eskumara: Mikel Agirre, Andoni Kortabarria, Javier Egino, Nerea Najera, Nerea Etxaniz, Malen Gallastegi, Amaia Otxoa, Uxuri Castelo, Iñigo Astiazaran, Ander Errasti, Maika Gallastegi, Uxue Sanz, Itziar Campos, Mikel Uribesalgo (entrenatzailea), Jokin Narbaiza, Mikel Eguren, Jon Odriozola eta Imanol Retolaza. Argazkian, Josu Rueda falta da.

**ENTRENAMENDUAK, AGORROSINEN**

Bergarako atletismo taldeak astelehenetan egiten ditu entrenamenduak, Agorrosingo atletismo pistan. Entrenatzailea, Mikel Uribesalgo, Arrasatetik etortzen da. Izan ere, Arrasate Atletismo taldearen laguntza du Bergarakoak. Atletismoa egin nahi duenak bertara agertzea besterik ez dauka.

Bestalde, zapatuan, eskola kiroleko 22. jardunaldia egin zuten Bergaran. Agorrosinen izan zen, eta atletismo topaketak izan ziren. GOIENKARIA ere han izan zen. Zapatu goizean euri asko egin zuen eta, horregatik, gaztetxo gutxi joan zen Agorrosinera.

## ATLETISMOKO PROBAK



**Ibai eta Jon**
Mariaren Lagundia

Atletismoan gustura ibiltzen direla dio bikote honek, "baina futbolean, gusturago", gaineratzen dute. Atletismoko proben inguruan, "guztiak gustatzen zaizkigu, baina korrika egitekoak, gehien". Pixka bat penatuta zeuden eguraldi txarragatik: "errelebo batzuk besterik ez ditugu egin".



**Aitor eta Unai**
Aranzadi 2

"Oso gustura ibiltzen gara atletismoan, bai", diote Aitorrek eta Unaik segurtasunez. "Futbola eta pilota, adibidez, gustuko ditugu ere", baina, atletismoari dagokionez, Aitorrek korrika egiteko probak ditu gustukoen, eta Unaik, pisua jaurtitzearen proba.



**Jon, Ibon eta Josu**
Aranzadi 2

Asko gozatu zuen hirukote honek atletismoan jardunean, baina argi utzi zuten bestelako kirolak ere gustuko dituztela. Josuk dioenez, berak atletismoa du gogokoen. Orokorrean, "korrika egiteko probak eta pisua jaurtitzearena" dira erakargarrienak.



**Daniel eta Iñaki**
Mariaren Lagundia

"Oso gogoko dugu atletismoa", diote Danielek eta Iñakik. Saskibaloia eta futbola ere nahiko gustuko dituzte, "baina atletismoan ez da horrenbeste jende izaten". Bikote honek ere "korrika probak eta pisu jaurtiketa" dituzte erakargarrientzat atletismoan.



**Alex**
Mariaren Lagundia

Normalean, "futbolean eta atletismoan" ibiltzen da Alex. "Erreleboak asko gustatzen zaizkit", eta bera azkarra d,a gainera. Bere taldeak irabazi zuen proba hori.

CL NET kontua
enpresak

EUSKADIKO KUTXA

# Hipnotizagarria

**Berehalako errentagarritasuna.**
**Enpresentzat bakarrik, Internet bidez bakarrik.**

# Euriborraren % 75 arte hilabetera



## CL NET kontuaren ezaugarriak

- Ordain handiak, frankiziarik gabe, Euribor erreferentziarekin hilabete batera *.
- Komisiorik gabe.
- Sarreren gutxieneko zenbatekorik gabe.
- Berehalako erabilgarritasuna 3.000 €-tik aurrera, Caja Laboral NET bidez zure beste kontu batera intsuldatuz gero.
- Interesak egunero kalkulatu eta hilero ordaintzen dira.
- Muga-eguneratze, balio, fondo, ordainduko eta abarretatik datozen zenbatekoen ordainketak egiteko aukera eskaintzen du.
- Interes-tasan truke-arriskuak gutxitzen ditu.
- Caja Laboral NET bidez egin daitezke eragiketak.

**CL NET Enpresak** kontua eskuratzeko aski da Caja Laboral NET-en alta emanda egotea eta Euskadiko Kutxaren sukurtsaletan kontratatzea.

## Ordainketa CL NET enpresak kontuan

| Zenbatekoa | Erreferentzia-tasa* | U.T.B. |
|---|---|---|
| 0tik 30.000 €-ra | Euriborraren %60 hilabetera | % 2,343 |
| 30.000 €-tik gora | Euriborraren %75 hilabetera | % 2,937 |

* Martxoko azken 3 egunetako hilabete baterako euriborraren (% 3,86) batez bestekoa, Reutersen argitaratua. Interes-tasa hilero berrikustea.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



**> MUSIKEGUNAK** Musika klasikoa entzuteko aukera dago Oñatin maiatz osoan **> 24**



**> ROCKA** Oraingo eta lehengo talde ezagunak, batera taula gainean **> 26**



**> ERAKUSKETAK** Eskultura eta liburuetako irudiak, erakusketa banan **> 27**



**> AITZPEA GOENAGA** Lan larregi, baina gustura egiten duela dio **> 29**



### III. MAGIA MOSTRA ELGETAN

# Datorren urtean itzul dadila!

**PRIMERAKOAK**
Primeran ibili ziren Elgetako Magia Mostrako magoak, ikuskizuna eta umorea uztartuta

**URTEROKOA**
Aste bukaera osoko egitarauarekin, magiazaleen urteroko hitzordua da Elgetakoa

**NAROA ETXEBARRIA** > ELGETA

Barre algara eta txalo artean pasa da Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko hirugarren Magia Mostra. Ikusleak, beste behin, aho zabalik geratu dira, eta magoak paregabe egon dira. Urteroko magia hitzordu bilakatzeko bidean da Elgetako Mostra. Aste bukaeran bizi izandakoaren ostean, hala izan dadila!

Egubakoitzean hasi zen ikuskizun handia, Suitzatik etorritako Roberto Giobbirekin. Ordu beteko emanaldian, izugarri ondo uztartu zituen magia klasikoa eta modernoa, guztia umorez blaitua. Kartomagian handienetakoa dela argi utzi zuen, egindako trukuen ostean. Antzokia ez zen guztiz bete, baina hurbildu ginen guztiok ez genuen ezpainetatik irribarrea kentzerik izan. Hainbat hizkuntza erabiliaz, eta ikusleen kolaborazioarekin, boladan pasa ziren oholtza gainean eman zituen 60 minutuak.

(44. orrialdean jarraitzen du)

## Datorren urtean itzul dadila magia mostra!

(43. orrialdetik dator)

**ZAPATUAN, HAINBAT MAGO**

Magia gala izan zen zapatukoa, eta bost mago espainiarren ikuskizunak ekarri zituzten gure artera. Goraino bete zen antzokia, eta guztiak aseta geratu ziren ikusitakoarekin.

Antzezle lanetan ibili zen Murphy magoak umore zertzelada eman zion gauari. Eragindako barreengatik, gaueko mago onenetakoa izan zen, askorendako, asturiarra. Bere lanean lagundu zion taula gainera igotako publikoak. Kolaboratzaileak ez zitzaizkion falta izan.

Nacho Diago ilusionista valentziarrak egin zuen salto oholtza gainera gero. Flexo bat lagun hartuta, harridura sortu zuen Elgetan. Aurrez, inoiz edo gutxitan ikusitako trukua egin zuen; originala, beraz. Valentziarraren interpretazioa ere azpimarragarria izan zen egindako bi ateraldietan. Airearen gainean eserita geratu zenekoa ere ezin ahaztu dezaket. Aterkiak aitzakia, eta musikaren laguntzaz, *sketch* polita egin zuen.



**USOA** Murphy mago asturiarra, trikimailu bat egiten zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL



**KALEAN** Globoflexia ikuskizuna egin zuten domekan Elgetan. JOSETXO ARANTZABAL

Luis Manuelen manipulazio lanak txundituta utzi zuen Espaloia. Hiru gitarrista flamenkoren laguntza izan zuen bere ikuskizunean zehar. Kartak maisuki erabili zituen esku artean, etengabe agerraraziz eta desagerraraziz. Horrenbeste sorta nondik atera zituen erantzuteko gogoarekin geratu beharko dugu, magoek ez dituzte sekula euren sekretuak argira ematen-eta.

Raul Alegriaren txanda iritsi zen ostean. Emanaldi koloretsu eta ikusgarria egin zuen, zapi atzetik ateratako uso eta guzti. Paperean egindako marrazkitik, esne botila eta edalontzia atera zituen, eta esnearekin jolasean aritu zen gero. Soilik begiratuta, esnea edalontzitik bonbilla barrura pasa zuen. Begi aurrean gertatzen ari zena ezin sinistu geratu zen publikoa.

Yunkek itxi zuen gala. Ikuskizun oso bisuala eskaini zuen taldeak; pena, soinu arazoren bat izan zela tartean. Burua moztu zioten neskari, bikotea segundo baten lekualdatu egin zen, eta gizakion zentzumenak noraino irits daitezkeen ere frogatu zuten.

Domekan, kalera irten zen ikuskizuna, batez ere umeen gozamenerako. Guztiarekin, asteburu magikoa izan da Elgetan. Hurrengo urtera arte, teloia jaitsi da berriz. Orain hiru urte hasitako esperientzia magikoak ez dezala amaierarik izan!

**MUSIKA KLASIKOA** > 29. OÑATIKO MUSIKEGUNAK

# Oñatiko musikegunak atzo hasi ziren, Aristizabal-Barandiaran bikotearekin

Santa Ana Antzokian maiatzeko domeketan, musika klasikoa entzuteko aukera egongo da; tartean, herriko Ganbara abesbatza arituko da

**EDURNE BURGAÑA**> OÑATI

Oñatiko 29. musikegunak, atzo hasita, maiatz osoan izango dira. Domekero izango dira ekitaldiak Santa Ana Antzokian. Aurten, gainera, Aita Madina jaio zela 100 urte bete dira, eta aurtengo kontzertuetako bat berari eskainita egongo da.

**HERRIKOEN PARTE-HARTZEA**

Udaleko kultura teknikari German Meabebasterretxeak azaldu duenez, "aurtengo lau jardunaldiak ildo beretik joango dira: musika klasikoa, kalitate handikoa gainera. Gero, bakoitzak aukeratu beharko du abesbatzak, bakarlariak, edo zer nahiago duen entzun". Musika klasikoa ez du jende askok entzuten, "oso zaleak direnak, edo musika munduan sartuta daudenak" joaten direla entzutera esan du kultura teknikariak.Baina izan ditzakeen zaleen artean, "jende asko" joaten dela argitu du.



**PIANOA** Esther Barandiaran eta Itxaso Aristizabal piano-joleak, atzo, kontzertuan. JOSETXO ARANTZABAL

Hirugarren kontzertua azpimarratu nahi izan du Meabebasterretxeak: "Herriko Ganbara Abesbatzaren emanaldia izango da. Gainera, Santa Anako organoa entzuteko aukera egongo da, eta urtean zehar ez dira aukera asko egoten horretarako".

### Egitaraua, eguna-ordua

**Oñatiko 29. Musikegunetako emanaldiak maiatzeko domeketan izango dira. Santa Ana Antzokian izangodira, 19:30ean.**

**6, domeka**
Piano bikotea: Aristizabal-Barandiaran.

**13, domeka**
Ana Salaberria sopranoa, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa eta Esther Mendiburu piano-jolea.

**20, domeka**
Oñatiko Ganbara abesbatza eta Da Voce abesbatza.

**27, domeka**
Ma non troppo ganbara orkestraren emanaldia.


KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK
Adituak planik-plan
Aurreikuspen-Plan berriekin etorkizun segurua izango duzu.
Oraintxe bertan lor dezakezu zeure etorkizuna ziurtatzea. Erakunde aditu batek bakarrik eman diezazuke, benetan, Aurreikuspen-Plan berriak zure esku jarriz, zeure aurrezkien errentagarritasuna bermatzeko aukera.
Kontrata itzazu ekainaren 29a baino lehen. Kopuru mugatua.
Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa eta Kutxa Bi BGAEtara atxikita daude.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

ROCK-AND-ROLLA > KONTZERTUA ARRASATEKO GAZTETXEAN

# Aspaldiko talde esanguratsuak eta egungo musikariak, bat eginda

Talde askok parte hartu zuten emanaldian, eta une berezieneko bat RIP taldeko Jul eta Txerra eszenatokian ikustean sortu zen

I.B./E.B. > ARRASATE

Egubakoitzean, 23:00etatik aurrera Arrasateko gaztetxean, Arrasateko Sozialista Abertzaleen aldeko emanaldia antolatu zuten. Arrasateko gazteei bururatuta, musikari bila aritu ziren, eta bost orduko ekimena egitea lortu zuten; oso berezia, gainera.

**KONTZERTU DINAMIKOA**

Bertsoekin hasi zen emanaldia, eta, ostean, Arrasateko hiru musikari etorri ziren: Des-Kontroleko bik eta beste batek emanaldi akustikoa egin zuten. Atzetik, MC6 taldea etorri zen: MC5 talde amerikar mitikoaren bertsioak jo zituzten.



**HUNKIGARRIA** Kontzertuko une hunkigarrienetakoa irudian: Puñetazo taldeko Porru Never Surrenderrekoekin. IMANOL SORIANO

Gaztetxea beteta zegoen: 500 sarrera inguru saldu ziren, baina ondo egon zitekeen. Belaunaldi nahasketa ikus zitekeen.

Taula gainera agertzen hurrengo taldea Los Deaz izan zen: Heriotza taldeko kide batzuk, Ekonekoekin batera lagundutako taldea. Laugarren taldea JFK izan zen. Arrasateko talde horrek ez ditu kontzertu asko egiten. Des-Kontroleko kide batek, Raul Lasak eta Kañeria 13ko kideek eratutakoa da. Bertsio batzuk egin zituzten, besteak beste, Diktators, Social Distorsion eta Beat Boys taldeenak. Oso onak izan ziren bertsiook.

Kontzertuko momentu hunkigarrietako bat etorri zen atzetik. RIP taldeko Jul eta Txerrak eta Des-Kontroleko Hodeik lau abesti prestatu zituzten: RIPeko bi, Cicatrizen bat eta Peter & The Test Tube Babies-en beste bat. Lehenengo ilaretan, zoramena sortu zuten hiruren artean.

Kontzertuaren zati potoloena izan zen jarraian: Never Surrender taldekoen emanaldia. Abesti mordo bat jo zituzten, kolaboratzaileekin. Bereziena Puñetazo taldeko Porru abesten ikustea izan zen. Baina ez bakarra: Anger taldeko Arkaitz The Clashen bertsioak abesten ikustea ere ez zen ohikoa izan. Lost Girls taldeko Oihanak Deliriums Tremensekoen abesti batzuk abestu zituen, eta jendea oso gustura egon zen.

Asko luzatu zen emanaldia, baina ondo prestatuta egon zen; dinamikoa izan zen, eta ez zen aspertzeko tarterik egon.



“Lapurzuloa” antzezlana

Non: Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

Noiz: maiatzaren 11n, egubakoitza, 22:30ean.

KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA


**ILUSTRAZIOAK** Elena Odriozola ilustratzailearen marrazkiak daude ikusgai Kulturaten. IKER BARANDIARAN

**ERAKUSKETA** > KULTURATEN ETA ARREGI DENDAN

# Bi erakusketa ikusteko aukera dago Arrasaten

Egubakoitzean zabaldu zuten Alberto Torresen lanak batzen dituen eskultura erakusketa

**EDURNE BURGAÑA** > ARRASATE
Arrasateko Arregi dendan erakusketa bat zabaldu zuten egubakoitzean. Alberto Torresen eskulturak biltzen dira denda horretan, eta maiatz osoan zehar ikus ahal izango dira.

Beasaingoa da izatez Alberto Torres, baina, gaur egun, Amurrion bizi da. Kontzeptu bezala arkitektura hartzen du artistak, eta hamabi lan batu ditu erakusketa horretarako.

**LIBUREN IRUDIAK, IKUSGAI**
Maiatzaren 2az geroztik, Elena Odriozola ilustratzailearen *Minimo* erakusketa dago zabalik Kulturateko klaustroan. Bertara joan nahi duenak domekara arteko epea dauka. Erakusketak, batez ere, azken urteotako liburuen irudiak eta testu ezezagun batean oinarrituriko ilustrazioak biltzen ditu.

Espainiako 2005eko Gazte eta Haur Literaturako ilustrazio onenaren bigarren saria eskuratu zuen Odriozolak *La princesa que bostezaba a todas horas* liburorako egindako ilustrazioengatik.

**JAIA ESKORIATZAN** > AITZORROTZ ELKARTEA

# Aitzorrotz kultura elkartearen eguna ospatuko da zapatuan

Ekitaldi nagusia arratsaldean izango da: magia, capoeira, zuzeneko musika eta kale animazioa egongo da herrian


**IKUSKIZUNA** Capoeira erakustaldia antolatu dute, besteak beste. ARTXIBOA

**E.B.** > ESKORIATZA
Eskoriatzako Aitzorrotz kultur elkarteak bere eguna ospatuko du datorren zapatuan. Goizeko 9etan hasiko dira ekimenak, txistularien kalejirarekin.

**EGITARAU ZABALA**
12:00etan, Bentazarko Mutil Alaiei ongietorria emango diete Herriko plazan. Ordu erdi eta gero, 12:30ean, Eskoriatzako toponimia erakusketa zabalduko dute, hori ere Herriko plazan.

13:00etan, "kalejira zurruteroa" egingo dute Bentazarko Mutil Alaiekin, eta 14:30ean, herri bazkaria, plazan.

17:00etan izango da ekitaldi nagusia: magia erakustaldia, capoeira emanaldia, zuzeneko musika eta kale animazioa egongo dira.

Aitzorrotz kultur elkartearen eguna amaitzeko, 22:00etan, Eskoriatzako Barua Bandaren aurkezpen kontzertua egongo da Inkernu tabernan.

**CORAZON DE ENCINA** > KULTURA EKINTZAK

# Extremadurarren Kultura Astea, asteburura arte

Corazon de Encina Extremadurako kultura elkarteak antolatutako ekimenen artean, lehiaketak, erakusketak eta hitzaldiak daude

**E.B.** > ARRASATE
Arrasaten dagoen Corazon de Encina Extremadurako kultura elkarteak 17. Aste Kulturala antolatu du. Apirilaren 28an hasi zen, eta oraingo domekan amaituko da. Egitarau zabala dute antolatuta Extremadurakoek egunotarako.

**TXAPELKETAK**
Gaur, Montserrat Puerto Nietoren margo lanen erakusketa zabaltzekoak dira. Bihar, bi lehiaketa egingo dituzte: 18:00etan, 25 urtetik beherakoen marrazki eta pintura lehiaketa jokatuko da, eta 19:00etan, adin guztietarako idazlan lehiaketa egingo dute. Hiru gai eman dituzte: euren zentroa, Extremadura eta Euskadi.

Etzi, Extremadurako eta zentroko bideoen emanaldia egingo dute, eta, eguenean, gaztetxoendako, futbolin txapelketa eta txokolatada.

**EKINTZA GARRANTZITSUENAK**
Barikurako, egitarau zabalagoa dute antolatuta. 19:30ean *Extremadurako oroimen historikoa* izeneko hitzaldia egingo dute. 21:15ean, saiheski jana egingo dute, eta ostean, bi emanaldi: 23:30ean, antzerkia, eta 00:30ean, Las Isabelesen kante flamenkoa.

Zapatuan, eguerdian hasiko dira ekimenak. 12:45ean, patata-tortillen lehiaketa eta dastatzea egingo dute. 13:00etan, elkarteko presidentearen agurra izango da, eta jarraian lurraldeko ardoarekin brindisa eta produktuen dastatzea egongo da. 18:30ean, folklore eta musika jaialdia egingo dute; 22:00etan, afaria eta, ostean, Gardokirekin dantzaldia.

Domeka izango da azkeneko eguna. 12:00etan, Extremadurako musika jarriko dute. Arratsaldean, sari banaketak eta *play-back* emanaldia.

**LEHIAKETAK** > ESKORIATZAKO SAN PEDRO JAIAK

# San Pedroetako egitarauko azaleko irudia eta esaldia aukeratzeko lehiaketak

Egitarauko irudia ekainaren 1erako aurkeztu beharko da, eta esaldia, maiatzaren 25a eta ekainaren 3a artean

**E.B.** > ESKORIATZA
San Pedro jaietako egitaraua apaintzeko lanean parte hartu gura duenak orain du aukera. Izan ere, egitarauaren azala diseinatzeko lehiaketa martxan dago, eta edozeinek parte hartu dezake.

Irudiek 21x10 cm neurtu behar dute, teknika librean eginak, eta *2007ko San Pedro Jaiak. Eskoriatza* esaldia eraman behar dute. Izen barik aurkeztu beharko dira; atzeko aldean leloa bat dutela, eta kartazal itxi batean, kanpoan, lelo bera, eta barruan, egilearen datuak.

Lanak udaletxean zein kultura etxean aurkeztu behar dira ekainaren 1eko 13:00ak baino lehen. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

**ESALDIAK ASMATZEN**
Baina hori ez da lehiaketa bakarra: jaietarako esaldia asmatzekoa ere martxan dago. Parte hartu ahal izateko, eskoriatzarra eta 13 urtetik gorakoa izatea derrigorrezkoa da. Hiru edo bost kideko taldeetan parte hartu beharko da, eta norberak talde bakarrean parte har dezake. Taldeko, nahi beste esaldi aurkez daitezke.

Jaiak airereratzeko esaldiak izan behar dira, baina ez dituzte onartuko neurriz kanpoko kontsumoa nahiz jarrera sexistak bultzatzen dituztenak.

Esaldiak udaletxeko eta kultura etxeko arkupeetan jarriko diren buzoietan utzi beharko dira, maiatzaren 25a eta ekainaren 3a bitartean. Esaldi sarituarengatik, San Pedro jaietan afari bat emango dute, eta plazan kartela jarri. Beste batzuk pegatinak egiteko erabiliko dituzte, eta horiengatik 50 euro emango dituzte.

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Graduondoko Ikasketak.** Rafael del Pino Fundazioa. Espainian eta atzerrian graduondoko ikasketak egiteko bekak lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzak. Epea: maiatzaren 4a.

**> Ipar-Hego programa.** Zarauzko Udala. GKEkin lankidetza-programak antolatzeko eta garatzeko ezarritako diru-laguntzak, garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen baldintza sozioekonomikoak garatzera eta hobetzera bideratutako jarduerak egiteko. Epea: maiatzaren 30a.

### IKASTAROAK

**> Gazteen Ekimenen Sustatzailea.** EDE Fundazioa. Gizarte arloko prestakuntza duten langabeentzat. Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Tokia: Bilbo. Epea: maiatzak 1.

### LEHIAKETAK

**> Graffitia.** Debagoieneko Mankomunitatea. Mundumira 2007, Munduko Kulturen eta Musiken III. Jaialdiak Graffiti lehiaketa antolatu du.Graffitien gaia: Bost kontinenteak . Epea: maiatzak 21.

**> XVI. Pop-Rock. Donostiako Udala.** KTE. Donostia hiriko XVI. Pop-Rock lehiaketa Epea: maiatzaren 11.

### LANA

**> Begiraleak.** Txatxilipurdi Elkartea. Udako kanpamenduetarako begiraleak behar ditu. Baldintzak: 18 urte baino gehiago, begirale ikastaroa eta euskera menperatzea. Epea: maiatzaren 4a.

**> Begiraleak.** Kiriketan Elkartea. Uztailean Donostian, Urnietan eta Andoainen lan egiteko. Interesa duenak goizez 943 45 33 34 telefonora deitu behar du. Epea: maiatzak 31.

### EKINTZAK

**> Euskal Udalekuak 2007.** 7tik 17 urtera arteko gazteentzat euskarazko udalekuak: Abaigar, Bernedo eta Goñin. Plazak mugatuak dira.

**> Auzolandegiak 2007.** Eusko Jaurlaritza. Izena emateko epea apirilaren 19an, goizeko 9etan, zabalduko da. Informazio gehiago: *www.gazteaukera.net*.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Adosatua. Estreinatzeko. 607 79 00 37.

**Arrasate.** Arimazubin etxea salgai. Egoera onean dago. Bi logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Kanpoaldera begira dago. 657 77 81 87.

**Arrasate.** Etxea salgai Grupo San Juanen. 60 m2, eguzkitsua, ganbararekin eta sotoarekin. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m2. Guztiz berrituta. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

**Arrasate.** San Josepen. 58 m2, bi logela, egongela, bainugela, sukaldea, trastelekua, berogailua, igogailua, guztiz berritua. Deitu 19:00etatik aurrera, mesedez. 667 53 70 00.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

**Bergara.** Apartamentua salgai Zubietan. Eguzkitsua. 656 78 06 95.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

**Bergara.** Etxebizitza guztiz berritua eta jantzia salgai. Zabalotegi kalean. 615 79 41 02.

**Bergara.** Labegaraietan etxea salgai. Berrituta eta altzariekin. 635 71 04 55.

**Bergara.** Simon Arrietan etxebizitza salgai. 80 metro koadro. Dena kanpo alder. Egoera onean. 652 76 86 68.

**Bergara.** Zabalotegin. 50 metro karratu ditu eta 14 metro karratuko trastelekua. Erabat berritua. 635 72 67 11.

**Biarritz.** 90 metroko apartamentua salgai. 3 logela, komuna, bainua, dutxa, sukaldea, bi balkoi eta egongela handia. Hondartzatik 10 minutura oinez. 646 69 47 99.

**Donostia.** Atiko polita salgai Donostiako erdigunean, hondartzatik oso gertu. Oso argitsua (bi leiho eta bi velux). Gela bat. Kalefakzioa eta igogailua. 630 22 67 57.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai, bigarren solairuan. Igogailua, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela eta ganbara. 138.232 euro. 645 71 76 25.

**Miarritz.** Etxebizitza salgai, 90m². Hondartzatik oinez 10 minutura. 646 69 47 99.

**Mutriku.** Bista ederrak. 70 metro koadro. Bi logela. Berrituta dago. Bizitzera sartzeko moduan (Belen). 676 38 07 83. 676 38 07 83.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. 656 74 80 47.

**Oñati.** Ugarkalden lehen eskuko etxebizitzak salgai: 100 m². Oso eguzkitsuak. Sukaldea

guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

**Oñati.** Ugarkalden lehen eskuko etxebizitzak salgai: 100 m². Oso eguzkitsuak. Sukaldea guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Ikasleentzako etxebizitza errentan ematen dut. Hiru logela ditu. 699 97 84 23.

**Cadiz.** Conilen, Bateles hondartzaren ondoan, apartamentua ematen dut errentan. 680 44 26 68.

**Hendaia.** Apartamentua errentan uztailean. Toki lasaian dago, terraza eta parkingarekin. 600 euro. 677 65 39 34.

**Hendaia.** Urbanizazio batean dagoen apartamentu bat errentan ematen da. Urbanizazioak igerilekua dauka eta apartamentua egokitu berria da. Parking partikularra. Lau lagunendako edo familia batentzako egokia. Inaxio. 670 41 08 58.

**Jaca.** Etxe bat errentan ematen da maiatzetik azarora. Urbanizazioa, tenis pista eta igerilekua dauzka. 665 73 95 65.

**La Barrosa-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**La Pineda (Salou).** Apartamentua errentan ematen dut. Berritua. Igerilekuarekin. 943 79 79 28.

**Noja.** Duplexa hondartzan. Uda. 696 90 94 43.

**Peñiscola.** Apartamentua errentan udan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin eta aparkaleku pribatuarekin. 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua ematen dut errentan Jaime I.a pasealekuan, Novelty eraikinean. Erabat jantzita eta aire girotuarekin. 629 98 98 99.

**Torrevieja.** Apartamentua, hondartzatik 100 metrora. Bi logela eta egongela-jangela ditu. 943 77 03 85.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaletan.** Bi neskak etxebizitza errentan hartuko lukete. 610 82 02 17.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 665 73 17 66.

**Debagoiena.** Bi neska, etxebizitza alokairuan hartzeko gertu. 636 05 36 18.

**Debagoiena.** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 606 92 59 33.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Debagoieneko herri baten. 638 43 80 27.

**Eskoriatza.** 2007-2008 ikasturterako lau logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, berogailuarekin. Deitu 12:00etatik aurrera. 619 16 12 55.

### 105. ETXEAK OSATU

**Debagoiena.** Bi neska gertu daude etxebizitza osatzeko. 616 05 97 92.

### 106. BESTELAKOAK

**Gasteiz.** Gorbeia kalean logela bat errentan ematen da. 300 euro. 652 72 18 87.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia alokagai Uarkapen. 605 77 59 03.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. Deitu 606 65 97 82 telefono zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Oñati.** Lokala salgai San Lorentzon. 605 77 15 13 edo 605 71 84 94.

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala errentan hartuko nuke. Deitu 660 43 71 94 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Elgeta.** Pertsona euskalduna behar da arratsaldez (18:30-20:30) hamar hilabeteko umea zaintzeko. 633 83 85 32.

**Oñati.** Emakume euskalduna behar da arratsalde batzuetan bi ume zaintzeko eta astean behin etxeko lanak egiteko. 638 37 91 89.

### 402. ESKAERAK

**Adineko pertsonak zaintzeko** emakumea gertu. 662 26 72 65.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzte orduka zein jardun osoz. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 943 71 21 13 edo 676 23 41 13.

**Debagoiena.** Mutil gazteak lan egingo luke peoi, garbiketa kontuetan edo fresatzaile. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 943 79 76 88 edo 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 646 75 08 07.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 662 26 67 25.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 663 46 93 60.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, ahal bezain laster. 943 79 89 96.

**Bergara.** First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru bider ingeles eskolak eman diezazkidan. 615 79 41 02.

**Bergara.** First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru orduz eskolak eman diezazkidan. 943 03 73 39.

**DBHko** 2. mailako eskolak jasotzeko irakasle partikularra behar dut. Ikasturte osorako. 652 76 21 63.

**Web orrialdeen** programazioko klaseak jasoko nituzke. Linuxen oinarritutako oinarrizko maila. Olaia. 649 17 48 27.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Alfa Romeo** 156 SW. Gasolinazkoa. 2004koa. 48.000 km. 645 00 99 35.

**Autokarabana** salgai. 1994. urtekoa. Eguzki-energiarako plaka dauka. Egoera oso onean. 18.000 euro. Telefonoa: 663 69 31 44.

**Ford Fiesta** salgai. 1.25 eta 75 ZP. 90.000 km. 9 urte. 609 31 29 63.

**Megane** Luxe Dinamique salgai, oso egoera onean. 1.9 Dti, 120 ZP, 2005ekoa, 40.000 kilometro. 13.300 euro. Telefonoa: 652 75 54 46.

**Mobilette** GAC 49 cc salgai. Matrikulatuta dago. Oso egoera onean dago,.

**Monobolumena** salgai. Seat Alhambra Sport. 130 ZP. Egoera onean, 43.000 km eta 2004koa. 653 71 04 56.

**Peugeot 106** diesela. Bost ate. 140.000 km. Oso ondo dago. (Jon). 669 17 01 72.

**Peugeot Eliseo** eskuterra salgai. 45 cc. Egoera onean. Merke: 400 euro. 657 73 93 82.

**Suzuki GS 500E** motorra salgai. 25.000 km eta egoera oso ona. 1.800 euro. Telefonoa: 669 97 93 48.

**Yamaha WR250** motorra salgai, 2001ekoa. 3.000 km eta egoera oso onean. 3.000 euro. 635 71 67 06.

## 7/ ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra.** Golden Retriever txakurra galdu da Garagartzan. "Oso" du izena, 7 hilabete ditu eta tamaina ertaina, ile horiduna. Eskertuko da. 943 79 61 14.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Autorako** DVDa eta pantaila salgai. 656 70 23 12.

**Bizikleta salgai.** Moser koadroa, aluminiozkoa, 55-56 neurrikoa, Shimano Ultegrarekin. 500 euro. 943 78 07 10.

**Emaztegai soinekoa** saltzen da, estreinatu barik. Neurria: 40. Zuria berdearekin. Modernoa. 800 euro. Telefonoa: 652 75 54 46.

**Kanpin denda-karroa.** Raclet Minto. 2002koa. Oso erraza muntatzeko eta gutxitan erabilita. 1.300 euro. Telefonoa: 617 28 08 86.

**Karabana.** Burstner markakoa, 435 TS. 2006koa. OÃfflatin. Presazkoa da. Telefonoa: 695 71 88 85.

**Karabana** salgai, Burstner markakoa. 2002koa. Bost plaza. Oso ondo zaindua. Truma berogailua, Alko estabilizatzailea, Electrolux hozkailua eta abantzea. Telefonoa: 647 27 31 40.

**Saxofoia.** Yamaha markako saxofoia saltzen dut. Ia berri-berria da. Telefonoa: 943 79 76 69.

**Trialeko bizikleta.** Monty 221 Ti. 2004koa. Egoera onean. Lehen 1.300 euro, orain 550 euro. Markel. 943 79 41 88.

**Txakurrentzako** erremolkea saltzen da. Oso egoera onean. Jon. 618 72 68 34.

**Ume-kotxea.** Bikiendako umekotxe tolesgarria, Maclaren Twin Traveller. Udarako, aulkiondako bi estalki eta negurako bina Red Castle forru polar eta zaku, eguzkitakoarekin. Telefonoa: 676 83 25 62.

**Windsurf ekipamendua.** 6,6 m²-ko hiru bela, Gaastra Echo motakoak. 6 m²-ko Arrow Air motako bela bat eta 5,5 m²-ko Triboard bela. Gainera, bi masta 460 cm eta 400 cm-koak, eta ezpeleta (botavara). Dena 499 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. 677 78 31 56.

**Windsurf ekipamendua.** Bic Rumba taula + 99 litroko Bic Veloce taula opari + estrak. Dena 275 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. Telefonoa: 677 78 31 56.

### 806. GALDU

**Bergara.** Mayc lantegiaren inguruan zilarrezko pultsera bat galdu nuen martitzenean, apirilak 17. Telefonoa: 615 78 49 64.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Aldapan dagoen lursail eguzkitsua errentan ematen da. Gernika pasealekuko zubitik gertu. 22:00etatik 23:00etara deitu, mesedez. 656 75 52 28.

**Maiatzak 7a: 128. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, maiatzak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Lau sarrera Elgetako ESPALOIAn maiatzaren 11n izango den *Lapurzulo* antzerkirako. Bakoitzari bi emango zaizkio.**
- Aintzane Azkarraga Ugalde (Bergara)
- Jokin Aiastui Ezkurra (Arrasate)

**129. zozketako sariak**



**Realaren txaleko bi**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 7



**> '2x2' izeneko saio berria gaur hasiko da**
**21:45**

Saio bakoitzean bi erreportaje eskainiko dira. Gorrotxategi museoa eta Adunan miniaturan egiten dituzten harriak dira gaurko gaiak.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** Ikusten.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ilunpean.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Bizitegia.
**16:15** Kirolari.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ur eta lur.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** 2 x 2.
**22:15** Hasiberriak.
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ikusmira.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 8



**> 'Berbaire'-k saio berezia egingo du gaur gauean**
**21:45**

Juanjo Kintela, Maite Perez, Ikerne Altube eta Amagoia Lasagabaster Goieskolako mahai inguruaren gainean arituko dira berbetan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Harmaillatik.
**14:15** 2 x 2.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Bizitegia.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Harmaillatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Mahai inguru berezia.
**22:15** Harmaillatik.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 9



**> Osinalde txapelketaren finala**
**21:15**

Gaur gauean eskainiko du GOITBk Osinalde bertso txapelketako finala. Bertan ikus ahal izango ditugu bertsolari gazteak.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Mahai inguru berezia.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmaillatik.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Teknopolis.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Bertsoak.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Telesaila.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ur eta lur.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 10



**> 'Didjeridu'-n, gazteak eta musika aipagai**
**22:15**

Gaurko *Didjeridu* saioan, Mikel Aranzabal musikari oriotarra izango da. Lehenago Gaitza taldeko kide zenak bakarkako bideari ekin dio.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Bertso saioa.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Telesaia.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Boboboak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa .
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Klika.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Musikantoi
**22:15** Didjeridu.
**22:45** Berriak.
**23:15** 2 x 2.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 11



**> Peio Ospital da 'Ilunpean'-eko gaurko gonbidatu**
**22:15**

Oihana Elortzak Pantxoa eta Peio taldeko kidearri egingo dio gaur elkarrizketa *Ilunpean* saioan. Musikariaren bizitza izango da hizpide.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Musikantoi.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ikusten.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Erreportajea .
**18:15** Bertsoak
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hauteskundeak 07.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Kirolari.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Herri Urrats, uholdeak eta hauteskundeak**
**11:10**

Herri Urratseko antolakuntza taldeko Alain Boscq izango da gaur autobusean. Aurtengo jaia zelan datorren kontatuko digu, baina baita hango uholdeek eta Frantziako Estatuko hauteskundeek izango duten eragina.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Erakundeen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**17:15** Zorion agurren tartea (errepikapena)

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua

## gertutik



Aitzpea Goenaga
Aktorea, idazlea eta zuzendaria

# "Denbora asko hartzen dit lanak, baina zaletasuna dut"

AMAIA ZALDUA > BERGARA

**Aitzpea Goenaga Donostian jaio zen, 1959an. Irakasle ikasketak egin zituen arren, aktore lanetan ezagutu dugu gehienok. Gaur egun, gidoigile, zuzendari eta idazle ere bada, eta prentsan, telebistan, zineman zein antzerkian ibilitakoa da.**

**Denetarik egin duzu. Zerekin geratzen zara?**

Gauza bakoitzean berea, nik ez diot ezeri uko egiten. Taula gainean aritzea asko gustatzen zait: antzerkia gogorra da, baina publikoaren esker onak asko betetzen zaitu. Idazteak diziplina ematen dit, eta buruko ideiak kanporatzeko bidea dut. Telebistan zuzentzeak, aldiz, plazera sortzen dit, istorioaren osotasuna zuzentzen baita.

**Artista familia zarete. Hereditarioa dela esango zenuke?**

Medikuntzaz, ezer gutxi dakit nik (barre). Sormen giroa dago nire familian, eta horrek erraztasuna ematen du sortzaile bihurtzeko. Hala ere, denok ez gara artistak.

**Zer nahiago duzu, drama ala umorea?**

Biak gustatzen zaizkit, baina orain, Euskal Herrian, arte arloan, ikuspegi sakonagoa behar dela iruditzen zait. Niri tragediak ateratzen zaizkit, baina denetarik behar da. Bekatua da genero bakarrean oinarritzea. Ikusle bezala, dramak asko gustatzen zaizkit, eta umore puntua ere eduki ohi dute.

**Sariek aurrera egiten laguntzen dizute?**

Niri lagundu zidaten neure burua leku berri batean kokatzen. Lehenengo aldiz, nik bakarrik idatzi nuen antzerki bategatik saria eman zidatenean, aurrera jarraitzeko indarra piztu zitzaidan.

**Zertan ari zara egun?**

Sator lanetan nabil orain. Bi telefilmerako gidoiak errepasatzen ari naiz, liburu bat itzuli berri dut, eta eskuartean ditut ere haur antzerki bat, bakarrizketa bat eta film bat. Denbora gehiegi dedikatzen diot beharbada lanari, baina nire zaletasuna da, eta, sufritzen dudan arren, disfrutatu ere egiten dut.

## asteko hitzorduak

### Saio esperimentala



ESKORIATZA

**> 'Bertsoak itzul daitezke?' izenburua duen saio esperimentala izango da**

Gaurtik egubakoitzera bitartean, HUHEZI fakultateak urtero antolatzen duen Literatura Astea izango da. Gaur, Xabier Paya, Andoni Egaña eta Onintza Enbeita izango dira bertso-itzulpenaren gainean berbetan eta jolasean.

### Antzerkia



ARRASATE

**> Etzi, eguaztena, 'Bremengo musikariak' izeneko antzezlana izango da**

Maiatzaren 9an, Paraiso antzerki taldeak antzeztuta, *Bremengo musikariak* izenezko antzezpena izango da Amaia Antzokian. 10:30ean, goizean, eta 14:45ean, arratsaldean, ikusteko aukera izango dute haurrek.

### Hitzaldia



BERGARA

**> Bizkarra eta posturak zaintzeari buruzko hitzaldia izango da Bergaran**

Bizkarra eta posturak zaintzeko aholkuak emango ditu Alicia Magdalena mediku eta hezitzaileak hilaren 10ean. Hitzaldia San Joxepe erretiratuen elkarteak antolatu du ,eta arratsaldeko bostetan izango da, euren egoitzan.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Teknologiak *pott* egiten duenean zer?

Aste bukaera gogorra izan da hau. Guk, behintzat, gure azalean sufritu dugu teknologiak *pott* egiten duenean gertatzen dena. Inoiz konturatu zarete teknologien mende bizi garela? Guri, sarea behera etorri zaigu, eta ibarreko kapitalera joan behar izan dugu lanera. Hori bai, lana aurrera atera dugu, inongo eragozpen barik. Emaitza hau da; orain, zuen esku dago egin duguna baloratzea.

Teknologien mende bizi gara, baina beharrezkoak ere baditugu. Aurreko astean, Oñatin, ume bat galdu zen

**"Bergaran, Ibargarai eta Irizar kaleetan jartzen dituzte isun gehien udaltzainek"**

**Olabarta** auzoan. Zorionez, onik aurkitu zuten txikia, ordu pare bat galduta egon ondoren. Amari, baina, sustoa ez dio inork kenduko.

Uholdeak direla eta, datorren astean egingo duten **Herri Urrats** jaia kolokan egon da, baina azkenean, egin egingo dute. Jaiak merezi duelako, denok **Senperer**a! Autobusak jarri dituzte, beraz, autoa ez hartzea gomendatzen dizuet. Non aparkatu ezinik ibili baino lasaiago joango zarete. Horren harira, Bergaran, % 53 igo omen da multa kopurua 2006an. **Ibargarai** eta **Irizar** kaleak dira isun gehien jartzen dituzten tokiak. Orain, badakizue non ibiltzen diren udaltzainak; beraz, ondo aparkatu edo, bestela, beste nonbaitera joan, gaizki aparkatu behar baduzue.

hildakoak

- **Miren Abarrategi Agirre.** Arrasaten, maiatzaren 4an. 85 urte.
- **Maria Eugenia Lasarte Cestau.** Arrasaten, maiatzaren 4an. 70 urte.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle**.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

asteburuko albuma

**Oñatzeko dantzari txikiak, San Migel Txikietan.** Aste bukaeran ospatu dituzte, Oñatiko Kale Zaharrean, San Migel Txikiak. Antolatzaileen esanetan, jende ugari ibili da eta giro polita izan da. Egubakoitzean, oñatiarrek erakutsi zuten jan eta edanerako gertu izaten direla; gazta-dastatzera inguratu ziren batzuk, eta sagardo eta ardoz busti ziren, gainera. Zapatuko garagardo festan ere, gustura ibili zen jendea, eta izan zen Kansala perkusio taldearen erritmora eta Haitzamakoen erromeri doinuekin dantzara animatu zenik ere. Txikienek ere izan dute jaietan lekurik: marrazkiak egiten eta dantzan, besteak beste. Jai batzordekoek bapo bazkaldu ostean, domeka arratsaldean, Oñatz dantza taldeko gaztetxoen dantza saioaz (argazkian) eta herriko bertsolarien jardunaz gozatzeko aukera ere izan zuten.





**Agur, San Andresko jaiei.** Arrasateko San Andres auzoko jaiek zabaldu zuten, joan zen aste bukaera luzean, inguruotako jaien ibilbidea. Jai zubia izanik, zalantzak zituzten antolatzaileek jendearen erantzunaren gainean, eta eguraldiak ere askorik ez zien lagundu. Hala ere, ospatu zituzten jaiak, ekitaldi askorekin, eta giro onean, gainera. Agur esan diete jaiei San Andresko auzotarrek, baina aurrerantzean ere antolatuko dituzte, txikienak ere gertu baitaude urte luzetan jaiek segi dezaten.

**Antzuolar bat, Santiagora bidean.** Apustua egin zuen Antonio Deogracias antzuolarrak herritarrekin: Santiago bidea oinez egin baietz. Zenbait zalantzaren ostean abiatu zen, eta gaur, astelehena, Galizian sartua izango da. Antzuolarrek Deogracias hitza betetzen ari dela ikus dezaten, hona hemen froga. Carrion de los Condes (Palentzia) herrian ateratakoa da argazkia, etxekoak bisitan joan zitzaizkionean. Amerikar eta alemaniarrez inguratuta omen dabil azken egunotan, eta berbarako lagunik gabe. Gainera, Antzuolako Altzarteko Begoñak, *La flecha amarilla* telebista saioan partaide izandakoak, emandako aholkuak baliozkoak izan ditu. Bidea amaitzeko eta apustua irabazteko animuz beteta dago.



**Debagoienetik Cordobara.** Maiatzaren 1eko zubia aprobetxatuz, Debagoienean bizi diren Cordobako Espieltarrak Estrella Ama Birjinaren erromeriara joan ziren. Herriko zaindaria da, hain zuzen ere, Estrella Amabirjina. Eskoriatzatik irten ziren autobusez, egubakoitzean, eta astelehenean etorri ziren bueltan. Eguraldi ederra izan zutela esan digute, eta oso ondo pasatu zutela. Argazkian, taldeko zenbait lagun Estrella Ama Birjinaren ermitaren aurrean. Jatorrizko egitura gorde du ermitak eta, besteak beste, egurrezko teilatua dauka.




ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** €.

**GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.**

## zorion agurrak


TENERIFE
**Josune Sanchez Zubiria**
Apirilaren 27an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Aitaita-amama eta Cloti eta Angel osaba-izebak.


ARRASATE
**Jessi Alonso**
Apirilaren 27an, 16 urte. Zorionak! Ahizparen, gurasoen eta izebaren partetik.


ARRASATE
**Sonia Alonso**
Maiatzaren 2an, 11 urte. Zorionak! Ahizparen, gurasoen, izebaren eta familia osoaren partetik.


ESKORIATZA
**Ilargi Legorburu**
Maiatzaren 3an, 2 urte. Zorionak amamaren eta tion partetik, sorgiña.


OÑATI
**Josu Zubia**
Maiatzaren 4an, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako, familiakoen partetik.


OÑATI
**Miren Arregi**
Maiatzaren 4an, urtebetetzea. Zorionak Miren! Lankideen partetik


ARRASATE
**Mikel Lasa**
Maiatzaren 4an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik.


ESKORIATZA
**Jabi Fachal**
Maiatzaren 4anurtebetetzea. Joe Jabier 24 urte ia, bueno bueno Marikarmen! Jaja. Zorionak, zure koadrilakoak.


OÑATI
**Txomin Madina**
Maiatzaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Zure lankideak.


BERGARA
**Julen Cabo**
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Familiakoen partetik.


ARETXABALETA
**Unai Mendikute Otxoa**
Maiatzaren 5ean, 17 urte. Zorionak eta urte askotarako! Luis Mari eta Dori osaba-izebak.


BERGARA
**Ruth Mancho**
Maiatzaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Gurasoak eta ahizpa Sara.


ARETXABALETA
**Maialen Diez Castro**
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat lagunen eta etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Mirari Altube**
Maiatzaren 7an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik.


OÑATI
**Irene Lizarralde Barrena**
Maiatzaren 7an, 4 urte. Zorionak printzesa. Maribel, Pedro, Xabi, Iban eta Eliren partetik.


OÑATI
**Uxue Osinaga**
Maiatzaren 8an, 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat, etxekoen partetik.


ARRASATE
**Egoitz Bergaretxe**
Maiatzaren 8an, urtebete. Zorionak etxekoen partetik!


ARRASATE
**Haizea Iñarra Mendizabal**
Maiatzaren 8an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat Zigarrolakoen partetik, bereziki Gorka.


ARRASATE
**Andoni Narbaiza**
Maiatzaren 9an, 6 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.


ESKORIATZA
**Irune Urrutia**
Maiatzaren 9an, 9 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Aitzol Lagunilla**
Maiatzaren 10ean urtebetetzea. Zorionak eta kiloka muxu Oskitz, aitatxo, amatxo eta etxekoen partetik!


ARRASATE
**Beñat Iturriotz**
Maiatzaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak eta ondo-ondo pasa!


ARRASATE
**Clemente Sanchez**
Maiatzaren 12an, urtebetetzea. Zorionak etxekoen partetik.


ESKORIATZA
**Jon Sanabria**
Maiatzaren 15ean, 6 urte. Zorionak etxekoen partetik.

## jaiotakoak


**Nerea Boisa Santana**
Arrasate > 2, 910 kilo. Apirilaren 29an. Gurasoak: Ana (Arrasate) eta Jacobo (Arrasate). Argazkian, Nerea jaioberria, ahizpa Eiderrekin.


**Uxue Lopez Lasa**
Arrasate > 3, 830 kilo. Maiatzaren 1ean. Gurasoak: Joana (Arrasate) eta Jon (Arrasate). Argazkian, Uxue, amama Maribelekin.


**Irene Larrañaga Alvarez**
Bergara > 3, 340 kilo. Maiatzaren 1ean. Gurasoak: Leire (Bergara) eta Iñigo (Bergara). Argazkian, Irene jaioberria, aitarekin eta amarekin.


**Iker Garcia Jimenez**
Eibar > 3,000 kilo. Maiatzaren 1ean. Gurasoak: Rosa (Eibar) eta Castor (Eibar). Argazkian, Iker jaioberria, amaren besoetan.


**Ekain Benito Romeo**
Arrasate > 3, 400 kilo. Maiatzaren 2an. Gurasoak: Victoria (Arrasate) eta Raul (Arrasate). Argazkian, Ekain jaioberria, aitonarekin.


**Danel Gonzalez Rodriguez**
Bergara > 3, 550 kilo. Maiatzaren 2an. Gurasoak: Susana (Bergara) eta Mikel (Elgoibar). Argazkian, Danel txikia, amaren besoetan.


**Amets Urrutia Arjonilla**
Bergara > 2, 960 kilo. Maiatzaren 3an. Gurasoak: Mentxu (Arrasate) eta Andoni (Bergara). Argazkian, Amets gurasoekin.


**Aines Gonzalez Balantzategi**
Arrasate > 3,130 kilo. Maiatzaren 4an. Gurasoak: Olaia (Arrasate) eta Ibon (Arrasate). Argazkian, Aines txikia, izeba Elirekin.

**ZORIONAK!**
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!


**Maddi Urrestarazu Irazabal**
Oñati > 4,000 kg. Maiatzaren 4an. Gurasoak: Aintzane (Oñati) eta Bixente (Oñati). Argazkian, Maddi jaioberria, kumatxoan.


**Gartxot Elizegi Agirre**
Astigarraga > 3,450 kilo. Maiatzaren 5ean. Gurasoak: Maria (Aretxabaleta) eta Xabi (Astigarraga). Argazkian, Gartxot txikia, amarekin.



**Jose Luis Elkoro** > Enpresaburua

# "Nahiago dut arropa erosoa trajea baino"



**ELKORO** Jose Luis Elkoro egubakoitzean egon zen GOITBn. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Polikan eta enpresa munduan egin du ibilbidea. Egun, erretiratuta dago adinez, baina lanean, ez erabat. Egunkariak irakurrita jarraitzen du egunerokotasuna. Mendiarekin eta itsasoarekin gozatzen du.**

**Paraleloan egin dituzu politikako eta enpresako ibilbideak?**

Enpresakoa lehenago hasi nuen, baina, gero, biak batera egin ditut, bai.

**Zergatik erabaki zenuen politikan sartzea?**

Bergarako Udalera sartu aurretik, herriko elkarte bateko kide nintzen; oraindik ez zegoen alderdi politikorik. Herriaren behar sozialen eta politikoen alde egiten genuen. Alderdiak sortu zirenean, Herri Batasunaren sorreran hartu nuen parte eta, harrezkero, hantxe egin dut ibilbide politikoa.

**Eta enpresa munduan, nola sartu zinen?**

Batxilergo ikasketak egin nituen Gasteizko barnetegi baten, zazpi urtez. Gure aitak enpresa bat zuen, eta han hasi nintzen lanean, ikasketak egin ostean, baina, gero, neure enpresa sortzea erabaki zuen.

**Politikagatik edo enpresa kontuengatik jantzi duzu gehiagotan trajea?**

Bietan antzera, egoerak eskatu duenean. Bestela, ez zait trajea gustatzen, nahiago dut arropa erosoagoa jantzi.

**Korrika egiten duzu oraindik?**

Operatu egin ninduten orain hilabete gutxi, baina medikuak eman dit baimena kirola egiten hasteko, eta jarraituko dut korrika egiten, bai. Mendira joatea ere asko gustatzen zait: Alpeetako tontor batzuk eta Pirinioetako gehienak egin ditut. Eskiatzen ere ibiltzen naiz, eta submarinismoa ere egin izan dut.

**Egiten duzu arrantzan Hondarribira zoazenean?**

Ez, baina itsas bazterra asko gustatzen zait. Portura ere sarri joaten naiz, arrantzaleak datozenean, arrainen sal-erosketa ikustera; polita da ikusteko.

**Zenbat egunkari irakurtzen dituzu egunero?**

Bi erosten ditut, eta beste lauzpabost sarean irakurtzen ditut.

**Zer moduz bizi zara erretiratuta?**

Adinez, erretiratuta nago, bai, baina oraindik ez dut lana erabat utzi. Enpresa gidatzeko langileak badaude han, baina jarraipena egiten diot oraindik, tarteka joaten naiz. Bestela, eguna ondo aprobetxatzen dut, ez naiz aspertzen.

TEST-A

**Herria:** Elgetan jaio nintzen, baina Bergaran bizi naiz 20 urte nituenetik . **Adina:** 72 urte. **Ikasketak:** Batxilergo ikasketak egin nituen Gasteizen. **Zaletasunak:** Mendia. **Futbola:** Gustatzen zait ikustea, baina talde bakar batek ere ez dit loa kentzen. Pilota partiduak ikusten ditut tarteka telebistan. **Korrika egitea:** Gustatzen zait, eta estresa kentzen laguntzen du. **Gustuko mendia:** Aizkorri; urtean zortzi bat aldiz joaten naiz hara.

## www.goiena.net

**Boteiloia egiteko ohituraz zer iritzi daukazu? Ondo iruditzen zaizu ohitura hori?**




## biharamuna

Marijo Deogracias

### Lagun batek dioenez, 'megagaiaz'

Titular bikaina litzateke: "Irungo eta Hondarribiko konpainia tradizional eta mistoa Antzuolan elkarrekin atera dira". Halaxe komentatu nion Antzuolako berriemaile **Aintzane Irizar**ri. Baina **Maribel Castello** Irungo konpainia mistoko lagunak atzo Antzuolako udaletxeko balkoitik baieztatu zidan "goizean izan dira, baina arratsalderako ospa egin dute". Ausarta izatea gauza handia da. Espero genuen baita Auzitegi Gorenarengandik horrelako ausardia, baina **Candido Conde Pumpido**k azaldu duenez, "erabakia pozik eta gogobetez hartu behar dugu". Jakin dezala Fiskal Nagusiak elkarbizitzari batere mesede ez diola egiten euskal herritar askori hauteskundeetan era normal baten parte hartzeko eskubidea ukatu izanak. Eguenean Auzitegi Konstituzionalak badauka beste aukera bat erabat antidemokratikoa den Gorenaren sententzia bertan behera lagatzeko. Ausardia bada behar duguna; edo asteburuan Elgetako Espaloian egon diren **Nacho Diago** eta konpainiaren magia.



Osterantzean **Pernando Barrena**ri entzun go diogu berriz ere esaten: "Prozesuak porrot eginez gero ondorioak ez dira soilik ezker abertzalearentzat, denontzat baizik: PSOErentzat, EAJrentzat eta, tamalez, herrialde oso batentzat".

## eguraldia



MINIMOA +11

MAXIMOA +17

Udaberriko giro eguzkitsua izango dugu. Goizean behe-lainoa agertuko den arren, jaso ostean, zeru urdina ikusiko dugu.

www.euskalmet.euskadi.net

iKER
**SUKALDEAK:**
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
**BAINUAK:**
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR

